



NERABEAK EUSKALGINTZAN

Ttak!, Txikupleittuak eta Ixotu taldeen
esperientzia

EGILEA: Xabier Uriarte Iñurrategi
TUTOREA: Estepan Plazaola Otaudi

SAKONTZE EGITASMOA 2016

NERABEAK EUSKALGINTZAN

Ttak!, Txikupleittuak eta Ixotu taldeen esperientzia

Xabier Uriarte Iñurrategi

Hiznet graduondokoa

LABURPENA

Ttak!, Txikupleittuak eta Ixotu taldeak Debagoienan jaio dira, modu autonomoan euskalgintzan aritzeko. Hirurak nerabez osaturik daude, eta bereizgarri horrek oztopo edo zailtasun batzuk eta beste horrenbeste indargune eta aukera sortzen ditu. Ikerketaren helburua da hiru esperientzia ezagutzera ematea eta bereizgarri horien inguruan hausnartzea, beste talde batzuentako argibide batzuk eskaintzeko asmoz. Horretarako, hiru taldeen bueltan dabiltzan protagonistak, taldea osatzen duten gazteak eta dinamizatzaileak, elkarrizketatuko dira.

Hitz gakoak: Euskalgintza, gazteak, parte hartzea, erakargarritasuna, militantzia, sare sozialak

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	4
1.1 Ikerketa-gaia.....	4
1.2 Justifikazioa.....	4
1.3 Helburuak.....	5
1.4 Metodologia.....	5
2.- HIRU ERRELATU.....	7
2.1.- Ttak! (Arrasate).....	7
2.1.1 Aurrekariak.....	7
2.1.2 Tak!en sorrera eta bilakaera.....	8
2.1.3 Antolamendua.....	10
2.1.4 Antolatutako ekimenak.....	11
2.2 Ixotu (Eskoriatza).....	12
2.2.1 Arizmendi Ikastolako lanketa: Bazara.....	12
2.2.2 Ixoturen sorrera eta bilakaera.....	12
2.2.3 Antolamendua.....	13
2.2.4 Antolatutako ekimenak.....	14
2.3 Txikupleittuak (Bergara).....	15
2.3.1 Aurrekariak: Ikastetxeetako Euskara Batzordeak.....	15
2.3.2 Txikupleittuen sorrera.....	15
2.3.3 Antolamendua.....	17
2.3.4 Antolatutako ekimenak.....	17
3-HAMAIKA OZTOPO ETA AUKERA	19
3.1 Zailtasunak eta oztopoak.....	19
3.1.1 Taldearen jarraipena.....	19
3.1.2 Belaunaldi eta taldekide berrien integrazioa.....	20
3.1.3 Erakargarritasun eza militantziarako eta beste talde batzuen eskaintzak.....	21
3.1.4 Ardi beltz sentitzea.....	22
3.1.5 Motibazio eta konpromiso maila desberdinak: denboran zehar eta kideengan... ..	23
3.1.6 Lan autonomoa noraino?.....	23
3.1.7 Dedikatzeko denboraz justu samar.....	24
3.2 Indargune eta aukerak.....	25
3.2.1 Freskotasuna eta ilusioa.....	25
3.2.2 Autonomia gidatua.....	25

3.2.3 Politikoki lerratuta ez egotea.....	26
3.2.4 Interneteko sareak ematen dituen aukerak.....	27
4. ARGIBIDEAK.....	28
4.1 Taldearen sorrera: esperientzia desberdinak.....	28
4.2 Taldeari jarraipena eman.....	33
4.3 Parte hartzea bultzatu.....	34
4.4 Erakargarri nola izan.....	35
3.5 Ekimenen prozesu osoa eta adibide batzuk.....	37
4.6 Dinamizatzailerak.....	43
5.ONDORIOAK.....	44
6. BIBLIOGRAFIA.....	46
7. ERANSKINAK.....	47

1.-SARRERA

1.1- Ikerketa-gaia

Euskalgintzaren bueltan haur, nerabe eta gazte asko dabilta: erabiltzaile edo begirale modura parte hartzen dute euskara elkarteek antolatutako ekintzetan; ikastetxeek bideratutako jardunean eragiten dute, euskara batzordeen bitartez; euskarazko kultur ekitaldiak antolatzen dihardute... Hala ere, gutxi batzuk dira elkarteak elikatuz dabiltzanak edo talde automoto gisara funtzionatzen dutenak.

Arrasateko Ttak!, Bergarako Txikupleittuak eta Eskoriatzako Ixotu taldeek beraien ibilbidea egiten dihardute euskalgintzan eta, neurri handi batean, talde autonomo gisa. Guztiak gazteez (15-18 urte bitartekoak) osatutako taldeak dira, eta asmo bera dute: beraien herrietako euskararen erabileran eragitea.

Asmo beraren ostean, sorrera, bilakaera eta esperientzia desberdinak bizi izan dituzte; horregatik, lan honetan, talde bakoitzaren errelatua sortuko dut. Bidean izandako, indargune eta ahulguneen inguruan hausnartuko da, protagonisten iritzietatik eta bizipenetatik abiatuz.

1.2-Justifikazioa

Eskoriatzako Ixotu taldean eman ditut azken bi urteak, sorreratik egundaino. Dinamizatzaile moduan aritu naiz, eta, urteotan, muga handiak ikusi dizkiot nire buruari; izan ere, hasiera batean, ezer gutxi nekien gazte/nerabeak dinamizatzeari buruz zein euskalgintzari buruz. Nire mugak eta esperientzia falta horiek zekartzaten zenbait zailtasunekin egin dut topo bidean.

Lanean hasi nintzenean, gustura hartuko nukeen zailtasun horiei aurre egiteko gida bat, alegia, zenbait egoeraren aurrean nola jokatu azalduko lukeen dokumentu bat. Gida horren faltan, gauza batek funtzionatzen ez zuela ikusita, beste batekin asmatzen saiatu gara –ez bainaiz bidean bakarrik aritu–.

Intuizioan oinarrituz, batzuetan arrakasta lortu dugu; beste batzuetan, ordea, ez. Lan honekin, esan bezala, hiru errelatu sortuko dira, hiru esperientzia. Bestalde, funtzionatu duenaren eta ez duenaren inguruan argibide xume batzuk aurkeztuko dira, hutsetik izaera honetako talde bat sortu nahi duenaren zerbitzura egon daitezen. Norbaiti baliagarriak bazaizkio lanean esandakoak, guztiz beteta legoke sakontze egitasmoaren helburua.

Ziurrenik, izango dira Euskal Herrian izaera honetako beste talde batzuk ere, eta, hortaz, lana asko aberastu daitekeela argi dut. Ezagutu dudanaren inguruan oinarritzen da lana; horregatik, hemendik aurrera ezagutuko direnekin aberasteko zabalik dago.

Azkenik, gazte hauek egiten duten lana nabarmendu nahiko nuke. Beraiek dira istorio honetan protagonistak, eta egiten duten lana zein hartutako hautua txalogarria dela deritzot.

Horregatik, beraien ahaleginari bultzadaxoa emateko aukera badaukat lan honekin, ongi etorria izan dadila.

1.3-Helburuak

Aipatu bezala, lanak beste talde batzuk martxan jartzeko orduan argibideak eskaintzeko bokazio du. Hori bilatzen denez, helburu orokor hau jartzen diot lanari:

Euskaingintzan diharduten hiru gazte taldeen esperientzia aztertzea eta izaera bereko taldeak dinamizatzeko argibideak ezagutzera ematea.

Helburu orokor hori lortzeko, zehatzago batzuen beharra dugu, ordea. Ondoren, berau operazionalizatzeko beharrezkoak diren bi helburu zehatzago formulatuko ditut:

- Ttak!ek, Txikupleituek eta Ixotuk izan dituzten sorrera eta bilakaera (ahulgune eta indargune edo aukerak identifikatuz) aztertzea.
- Talde hauen bueltan aritu diren dinamizatzaileen zein taldekideen hausnarketetatik, taldeok dinamizatzeko egon daitezkeen argibideak batzea.

1.4-Metodologia

Lan hau burutzeko, Ixotu taldearekin bi urte hauetan izan ditudan esperientzietan oinarritu naiz. Astero egindako bilerak (koordinatzaileaz zein gazteekin), ekintzak antolatzeko orduan izandako esperientziak, bileretan sortutako aktak... erabiliko ditut sakontze egitasmoa elikatzeko.

Bestalde, esan bezala, Ixotuz gain beste bi talderen esperientziak ere kontatu, izaera honetako taldeen indar-gune eta ahulguneak identifikatu eta hauek dinamizatzeko argibideak eskaini nahi dira lanean.

Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da: sakoneko hiru elkarrizketa eta bi eztabaida talde egin ditut. Gainera, urte hauetan taldeek idatzizko materiala ere sortu dutenez, edukien azterketa ere erabili dut.

- EZTABAIDA TALDEAK
 - Txikupleittuak: Bergarako taldea
 - Ixotu: Eskoriatzako taldea
- SAKONEKO ELKARRIZKETAK

- Iñaki Eizmendi: Ebeteren¹ sortzailea eta nire laneko gaien aditua.
- Maite Agirre: Bost urtez Ttak taldeko dinamizatzaile eta AEDko langile ohia
- Xabier Arenaza: Eskoriatzako langile ohia, Ixotuko koordinatzailea eta, ni agertu aurretik, taldea sortzeko lan egin zuen.

Bi eztabaida taldeek helburu bat zeukaten: bi urte hauetan identifikatutako oztopo eta aukerak beraiekin komentatzea eta protagonisten iritziak jasotzea. Gainera, Eskoriatzako taldea ondo ezagutzen nuenez, Bergararekin saioa egiteak kontrasterako abagunea eman dit.

Bestalde, hiru sakoneko elkarrizketa burutu dira dinamizatzaileen ikuspuntua jasotzeko asmoz eta zenbait argibide batzeko helburuaz. Hala ere, elkarrizketa bakoitzean gai desberdinak jorratu dira, esaterako, Xabier Arenazarekin izandako elkarrizketak –ni agertu aurretik– Ixoturen sorreran izandako hausnarketak ezagutzea zuen helburu

Esan beharra dago Txikupleittuekin egindako saioan, Estepan Plazaola Bergarako Udaleko euskara zerbitzuburuak zein taldeko dinamizatzaileak (Irati Alberdi) parte hartu zutela, eta, Iñaki Eizmendirekin izandako elkarrizketan, Estepan Plazaolaz gain Eli Payros euskara teknikariak ere parte hartu zuen. Hauen ekarpenak ere aberasgarriak izan dira, eta lanerako balio izan dute.

¹ Haurren eta gazteen euskararen erabileran eta hizkuntza-ohituretan eragiteko baliabideak eta tresnak frogatzeko eta garatzeko helburuarekin, 2007 urtean sortutako taldea da.

2.-HIRU ERRELATU

Hurrengo lerrootan, hiru taldeen sorrera, bilakaera, antolamendua eta antolatutako ekimenak azalduko dira. Errelatuen ordena taldeen sortze dataren arabera izango da; alegia, martxan denbora gehien daraman taldetik hasiko gara, gutxien daramanarekin amaitzeko.

Gainera, AED-ko Ttak! taldeaz hasita, hamarkada batzuk atzerago euskara elkarteetako gazte mugimenduek ezarri zituzten aurrekariak azaltzeko aukera izango dugu.

2.1-TTAK! (Arrasate)

Arrasate Euskaldun Dezagun (hemendik aurrera AED) elkarte 1983. urtean sortu zen Arrasaten. Ordutik, euskararen erabilera zein euskal kultura suspertzea ditu helburu, eta, lan horretan, aitzindaria izan da zenbait egitasmo aurrera eramaten. Gazte eta nerabeekin izan duen jardunean ere hala izan da; ikus dezagun.

2.1.1-Aurrekariak

Elkartearen dinamika desberdinetan, gazteek parte hartzen zuten: Arrasate Press banatzen, Udalekuetako begirale izaten, kultur ekitaldiak antolatzen... Baina ez zeukaten egitura propiorik. 1992. urtean, ordea, Gazte Saila eratu zen.

Esan beharra dago, urtebete lehenago, "Biheko" taldea sortu zela eta Gazte Sailaren urte berean "Jo ta Sue". Biak nerabe taldeak ziren, arduradunen laguntzaz beraien udalekuak antolatzeko sortuak.

Gazte Saila, ordea, garaiko txostenek diotenez, izaera desberdinaz jaio zen: "oraingo hau, gazteendako mugimendu espezifiko bat da, hau da, gazte mugimendu bat, gazteek sortua, gazteendako". Hasiera batean, sekulako arrakasta izan zuen; izan ere, 16-20 urte bitarteko 80 gazte hurbildu ziren taldera. Zeukaten helburua ere txostenetan jasoa geratu zen: "Lehenik ikasketak aurrera ateratzea, eta asteburuetako denbora libre modu didaktiko eta entretenigarri batetan pasatzea." Ikus daitekeen eran, aisialdiaz lotutako helburua ezarri zuten.

Taldea oparoa izan zen, honen sorreran pentsa ezin zitezkeen emaitzak lortu baitzituzten, eta, oparotasunaren erakusgarri izan zen antolatutako ekintza asko eta asko ikur bilakatu zirela. Tartean ekintza hauek zeuden: Hiru Handiak Hiru Egunetan, Nesken futbito txapelketa, auzolandegiak, Gazte kanpaldiak, Gaztainerre jaialdia, Dragoi Jana herri afaria, Goitibehera lasterketa...

Arrakasta horren arrazoiak, nagusiki, bi izan zirela nabarmentzen dute orduko taldekideek. Bata, taldearen autonomia handia da; bestea, ekintzen ostean zetorren "saria", ekintza horien bueltan ezagutu baitzuten gazteek gaua, parranda, alkohola... adin horietan oso erakargarriak diren gauzak.

Hala ere, arrakastak arrakasta, hamarkadaren amaieran, taldearen gainbehera etorri zen. Arrazoiengatik inguruan hausnartzean, hiru azpimarragarri ageri dira: herriko beste gazte mugimenduekin harreman kaxkarra, talde itxiaren itxura ematea eta teknikari aldaketa. Arrakasta eta gainbehera hauen arrazoiengan aurrerago sakonduko dugu, oraingoz aipatzearekin nahikoa dela deritzot.

2.1.2-Ttaldearen sorrera eta bilakaera

90. hamarkadatik aurrera beste talde batzuk sortzeko ahalegina egin bazen ere, ez zen talde egonkorrik sortu. Horregatik, urte haietan aurrera eramandako ekintzak beste gazte mugimenduekin elkarlanean garatu ditu AED-k. Esaterako, hainbat urtez, "Gazte astea" antolatu zuen, Udaleko Gazteria sailaren babesarekin eta beste gazte mugimendu batzuekin batera.

Egoera hartan urte batzuk eginda, hausnarketa egin eta zenbait ondoriotara iritsi ziren. Batetik, gazteei zuzendutako lanketa ekintza konkretu batzuetara mugatzen zen; alegia, jarduna murriztu zen. Bestetik, euskalgintzan zegoen hautematea gailendu zen: mugimendua gaztetu beharra zegoen. Maite Agirrek dioen modura "nori pasako diogu lekukoa?" galdetzen zioten elkarri.

Gazteen hizkuntza ohituretan bulegotik eragitearen mugak agerikoak ziren; horregatik, oso ahuldurik zegoen jarduna indartu beharra zegoen, gazteei begirako ekintza gehiago sortuz eta elkarteak jende gazteaz elikatuz. Azken finean, argi zeukaten elkarteko gazte horiek eragiteko gaitasun askoz handiago izango zutela, beraien inguruko gazteengana heltzeko aukera izango baitzuten.

Nondik hasi gazteak erakartzen? Galderari erantzutea ez zen erraza, ordurako, AED-k gazteekin zeukan kontaktua txikia baitzen. Hau ulertzeko, esan beharra dago Arrasateko euskalgintza hiru elkartetan banatuta dagoela: AED, Ekin eta Txatxilipurdi. Ekin 1985. urtean sortu zen Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen baitan, emakumeontzako espazio euskaldun gisa eta emakumeen eskubide eta aukeren alde. Txatxilipurdi ere AEDko lantalde moduan jaio zen, ikusirik Arrasaten haurren aisialdian euskarazko eskaintzak zuen gabezia. 1994. urteaz geroztik, elkarteak da, eta Debagoieneko zenbait udalen gaztetxoko eta ludotekak kudeatzen ditu, beste ekimen batzuen artean.

Hiru elkarrekin sustrai berdina baino faktore gehiago konpartitzen dituzte. Jatorria, bazkidetza, hainbat egitasmo eta elkarte euskaltzaleen izaera ere konpartitzen dituzte, baina eragin esparrua ez dute konpartitzen.

Printzipioz, AEDk 18 urtetik gorako gazteak erakartzeko asmoa zuen, baina, hauekin harremanetan jartzea zaila zenez, aukera hori baztertu egin zuten. Pentsatu zuten egokiagoa izango zela, lehenengo 18 urtetik beherako gazteak formatzea eta hauekin talde sendoa osatzea, gero talde hori 18 urtetik gorako gazteekin elikatzen joateko.

18 urte bitarteko gazteak Txatxilipurdiaren eraginpekoak dira, eta, hortaz, beraiekin lankidetzan jarri behar zuten martxan talde berria. Nolabait, "baimena" eskatu behar izan zioten Txatxilipurdiari gaztetxoekin lanean jartzeko, ez baitzuten nahi bata bestearen esparrua zapaltzerik edo lan bera bikoizterik.

Gainera, bazekiten beste iturri batzuk ere bazeudela gazteak erakartzeko, esaterako, ikastetxeak. Baina bide horien beharrik gabe, lortu zuten talde batekin zubiak eraikitzea. Txatxilipurdikoekin hitz egin ostean, jakin zuten San Andreseko² Gaztetxokoa uztekoa zen talde bat, koadrila bat, bazela. Profilak ikusita lanean hasteko moduko taldea izan zitekeela uste zuten (profilari dagokionez, argituko dut 16 urteko neska koadrila zela, aurrerago perfil kontuak ere irtengo baitira).

Kontaktatzeko aitzakia bilatu behar zuten, eta horretarako Dragoi Janerako³ plaza apaintzea proposatu zieten. Aurrez, bazekiten eskulanak egitea gustatzen zitzaizela, horrela esan baitzieten Gaztetxokoko begiraleek.

Ekintza ondo irten zen, eta sari modura afari batera gonbidatu zituzten. Afari hartan, talde bezala martxan jarraitzea gustatuko zitzaizkien galdetu zieten. Baietza jaso eta hurrengo irailean berriz elkartu ziren, kasu hartan ere ekintza konkretu baten bueltan: Euskaraz Bizi Nahi Dut-en bideoa grabatzea.

Koadrilatxo hark taldeari forma eman behar zitzaizela ikusi zuen. Izan ere, batetik, egindako ekintza horien ostean hartutako lana errekonozitu behar zitzaizela ikusi zuten, eta bestetik, taldekideen inguruko arrasatearrek zertarako elkartzen ziren garbi ez zutenez, egoerak ezinezona sortzen ziren. Hortaz, taldeari forma eman behar zitzaion: izena jarri, ikurra sortu, prentsaurreko bat egin eta Ttak! eguna antolatu zuten.

Ttak! egun horrek arrakasta handia izan zuen, jende askok parte hartu zuelako eta taldea herrira zabaltzea lortu zutelako. Arrakastaren ostetik, gazte batzuk hurbildu ziren taldera, egiten zutenarekin interesatuta eta inguruko euskararen egoerarekin kezkatuta. Gazte horiek hurbildu izana oso notizia positiboa zen, baina aurrerago ikusiko ditugun arazo batzuk ere ekarri zituen.

Lehenengo kolpea hasierako talde horrekin heldu zitzaizkien elkartekoei, ez baitzuen jarraipenik izan eta, hortaz, ez zelako AEDren asmoa bete. Maite Agirrek azaltzen duen moduan, batetik, “aisialdiarekin eta adinarekin lotuta ikusi zuten taldea”; hau da, batxilergoa bukatu bitarteko zerbait bezala ikusten zuten, unibertsitatera joatean alde batera utziko zuten zerbait bezala. Bestetik, “talka generazionalak” ere izan zuen zeresana, Agirrek dioen eran, taldera jende berria gehitzean, aurretik zeudenei statusa aldatu zitzaizkien: “esatetik hau nirea da, bat-batean, beste batzuk daude hemen eta beraien iritziak nirearen garrantzi bera du”.

AEDk jarraipena emateko asmoa zuela azaldu eta taldea gazte gehiagorekin elikatuz joan behar zuela azaldu arren, hasierako koadrila hark ez zuen Ttak!en jarraitu. Lagun taldeak sartuz eta irtenez joan dira, lauzpabost bider, Ttak! sortu zenetik egundaino. Tartean, koadrilen arteko beste talka aipagarriren bat ere izan zen, eta aurrerago egingo zaio erreferentzia.

Gazte berriak erakartzeko Gaztetxokoa erabili dute urteotan, bertako erabiltzaileendako Ttak! festa antolatuta, eta badirudi funtzionatu duela, Ttak!era etorritako azken bi taldeak bertatik etorri baitira.

² Arrasateko auzoa da.

³ San Juan jaietan AED eta Arrasateko AEK-k antolatzen duen afaria da.

Kontu kontari, 2016ra heldu gara, baina atzean utzi dugun AEDren ahalegin bat gogoraraztea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Esan bezala, elkartearen asmoa hamazortzi urtetik gorako gazteak aktibatzea zen, eta horretako, 2012an, Arrasateko gazte euskaltzaleen topaketa antolatu zuten.

Topaketa martxan jartzeko, alde batetik, Ttakleko kideak tanteatu zituzten, eta, bestetik, Txatxiliupurdirekin elkarlanean jarri ziren, berriz ere. Oraingoan, ordea, ez zen erabiltzaileak erakartzeko asmoarekin, baizik eta hezitzaileak (langileak) erakartzeko asmoarekin.

Gaztetxean ospatu zen Topaketa, eta 16 eta 30 urte bitarteko gazteek hartu zuten parte. AEDk gidatutako dinamika desberdinen inguruan, ekarpen aberatsak plazaratu ziren, eta hauek aurrera eramateko prest egongo lireratekeen galdetu zitzairen parte-hartzaileei. Askok baiezkoa eman zuten, eta bilerak jartzeari ekin zioten.

Zoritxarrez, egitasmoa erori egin zen. Maite Agirrek izandako arazoa seinalatzen du: “16-17 urteko gazteak oso aktino zeuden, baina poliki-poliki hortik gorakoak erortzen joan ziren, zergatik? Ba, jarraikortasun bat eskatzen zuen dinamika bat sortu zelako eta adin tarteen diferentzia oso handia zelako”. AEDk esperientzia horretatik ondorio bat atera zuen: adin tarteak ezin dira nahastu.

Hala ere, ez zuten etsi, eta hasitako lanari beste ahalegin bat eskaini zioten, planteamendua birformulatuz. Horretarako, topaketetan parte hartu zuten gazte batzuk deitu zituzten (hogeita piku urteren bueltan zebiltzanak), eta taldea sortzeko asmoa zegoela komentatu zieten. Hauen baiezkorekin “Eusberdin” taldea jaio zen, baina adostu zuten noizean behin bilduz funtzionatuko zutela, hau da, urtean pare bat ekimen antolatuz eta ez bilerak eginez jarraikortasun handiaz.

Maitek esandakotik, taldea “stand by” egoeran aurkitzen da, egun; hala ere, badirudi taldekide batzuk jarraitzeko gogoz eta ilusioz dabiltzala.

2.1.3- Antolamendua

2010tik egundaino modu desberdinetan antolatu da taldea. Hasiera batean, taldeak dinamizatzaile bat zuen, eta Maite Agirrek (lanerako elkarrizketatuak) arduradun lanak egiten zituen.

Hala ere, diru kontuetan izandako murrizketen ondorioz, dinamizatzaile hori egoteko aukerak ez dira beti izan. Denbora tarte batzuetan, INEMeko diru-laguntza bati esker, dinamizatzailea izateko aukera izan dute, baina ez urte osoan zehar baizik eta urte erdi gutxi gora behera.

Hortaz, Ttak!en ibilbide osoan Maite Agirrek bakarrik parte hartu duela esan daiteke, nahiz eta momentu jakin batzuetan bidelagunak izan. Gainera, gazte taldea AED barneko proiektua denez, elkarteko langile eta bazkideen babesa izan da prozesuan.

2.1.4- Antolatutako ekimenak

Taldeak ibilbide luzea izan duenez, ekimen askoren artetik gutxi batzuk aukeratu behar izan ditut hurrengo zerrenda betetzeko. Hauetako batzuk Arrasateko urteko agendan bere lekutxoare ere bilatu dutela esan daiteke.

- *Erreferenteekin saioa:* Azken lau urteetan erreferente euskaldun baten bisita jaso dute Arrasaten. Lehenengo hiru gonbidatuak (Julian Iantzi, Ines Osinaga eta Iheskideko taldekideak) AEDk gonbidaturik etorri ziren, azkena berriz (Pello Reparaz) Ttaklek gonbidaturik. Saioa gaztetxean izan zen, eta Institutuko zein Arizmendiko ikasle nagusienak egon ziren gonbidatuaren esanak entzuten eta galderak egiten.
- *Ttak eguna:* Taldea sortuz geroztik, urtero aurrera eramandako ekimena dugu hau. Urteotan formatu desberdinak izan ditu egunak, eta bakoitzean arrakasta maila ere desberdina izan dela esan genezake. Hala ere, nabarmendu beharra dago, urtero izan dela Arrasateko gazteen bilgune.
- *Ttak festa:* Gaztetxokoan egiten den ekimena da. Honen helburua da Gaztetxokoko erabiltzaileek Ttak! ezagutzea eta batetik besterako zubilana egitea.

Barrura begira, taldeko kideendako propio eginiko zenbait ekintza ere antolatu dituzte; hauek dira horietako batzuk:

- *Sexologoarengana bisita*
- *Txalaparta ikastaroa*
- *Eskalada irteera*
- *“Gazte goza tope⁴” topaketan parte hartzea*

Bada beste ekimen bat oraindik gauzatu ez dena, baina berau antolatzen igaro dute Ttak!ekoek aurtengo ikasturtearen zati handi bat. Honen aipamena egitea beharrezkoa ikusten dut,

⁴ Garaionek Naturarteak elkarrekin antolatutako egitasmoa, euskaraz gozatzen dutenentzat bideratutako jardunaldiak.

aurrerago erreferentzia egingo zaiolako eta beste talde batekin elkarlanean antolatzen ari direlako. Beste taldea Eskoriatzako Ixotu da, eta hauek lirateke ekimenaren nondik-norakoak:

- *Gazte Euskaltzaleen Topaketa*: Euskal Herriko gazte edo talde euskaltzaleak bildu nahi ditu ekimen honek. Arrasateko Udala auzoan, asteburu bat pasatzeko aitzakiaz, formazioa eta aisialdia uztartuko dira. Horretarako, egitarau polit bat osatu nahian dabilta Ttak! eta Ixotu. Espero da urrian ospatzea.

2.2-IXOTU (Eskoriatza)

Taldearen sorreraz hitz egin aurretik, Arizmendi ikastolako Bazara ekimenak zertan datzan azalduko dut. Izan ere, Arizmendi ikastolako gune batean jaio zen Ixotu, eta, nahiz eta Bazara ekimenak –printzipioz– ez duen eraginik izan taldearen sorreran, Ixotu sortu duten gazteek euskaltzaletasunaren inguruan egiten zuten lanketa Bazarak eskaintzen zien.

2.2.1-Arizmendi Ikastolako lanketa: Bazara

Bazara martxan jartzeko prozesua 2005 urte inguruan piztu zen, kezka batetik abiatuta: Arizmendi Ikastolako ikasleen artean euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean amildegi bat zegoen.

Arazo horren atzean zeuden faktoreak bilatzeari ekin zioten, eta ondorioztatu zuten arazoa identifikazio mailakoa zela; hau da, ikasleen identitate indibidual eta kolektiboaren eraikuntza bide hori ez dagoela euskararen ardaztuta. Horregatik, argi zuten beraien egitekoa ez zela euskara erabil zezaten lan egitea, baizik euren identitatea modu kontzientean eraikitzen laguntzea.

Horretarako jarri zuten martxan Bazara egitasmoa, euskaldun izateko hautu kontzientea egingo duten pertsonak garatzen laguntzeko.

Nik ere jaso nituen Bazarako saioak gazteago nintzenean, eta, orain saioon izaera asko aldatu den arren, badirudi orain arteko saioak nik hartu nituenen antzekoak izan direla. Saio horietan, euskal nortasunaz gain, kooperatibismoa bezalako gaiak ere jorratzen ziren, nonbait, gure bailarako eta Ikastolako ezaugarri garrantzitsuenetako bat izan direlako.

Esan beharra dago, egun, oso bestelako gaiak ere jorratzen dituztela, eta erakargarritasuna irabazi duela aldaketekin. Gainera, funtzionamenduari dagokionez, Batxilergoan parte hartzea boluntarioa da, hau da, interesa dutenek hartzen dute parte; DBHn, ordea, ikaske guztiek jasotzen dituzte saioak.

2.2.2 Ixoturen sorrera eta bilakaera

Eskoriatzako Ixotu taldearen sorrera 2014ko ikasturte amaieran kokatzen da. Taldea sortzeko pizgarria Loramendi elkarteak Arizmendiko Almen gunean⁵ egindako kanpaina bat izan zen. Jende gaztea erakarri eta elkarte barruan gazte talde bat sortzeko asmotan ikasgelaz ikasgela joan ziren jendea animatzera. Parranda giroan egin zuten bisita, eta zenbait gazte animatzea lortu zuten.

Loramendik eginiko deialdia aretxabaletarrentzat zen, eta, hortaz, gazte eskoriatzarrak kanpo geratzen ziren. Eskoriatzako koadrila batek, ordea, ekimen berri horren inguruko jakin-min eta interesa zeukan, eta, garai hartan, guneko irakasle bati (Xabier Arenaza) komentatu zioten beraiek ere sortuko luketela horrelako talde bat. Irakasle izateaz gain Arenaza Eskoriatzako Gaztelekuko⁶ hezitzaile eta herrigintzan aritua da.

Aukera ikusita, Gaztelekuko hezitzaileek euskara teknikariaren atea jo zuten beronen berri emateko. Guztiek begi onez ikusi zuten, eta garrantzia eman zitzaion hasieratik, horrelako hauspoa Eskoriatzak aspaldi behar baitzuen. Esan beharra dago garai bateko euskara elkarteak, Axtrokik, aspaldi utzi ziola aktibo egoteari.

Arrasateko AED-rekin batzartu eta beraien esperientziaz busti eta gero, martxan jarri zuten gazteen asmoa. Horretarako dinamizatzaile baten beharra zutela pentsatuz, niregana jo zuten. Euskalgintzaren bueltako jakintza murriztekin eta taldeak dinamizatzeko esperientziarik gabe ekin nion bidaiari.

Gazteekin egon aurretik, bilera pare bat egin genituen Eskoriatzako euskara teknikariarekin eta Eneko Barberenarekin, garai hartan Txatxilipurdiko zuzendari zenarekin. Bilera hauen bitartez, zeuzkaten asmoak ezagutu nituen, baita eskatzen zitzaidan lanketa ere.

Ordutik, bi ikasturte hauetan, gazteen aisialdia, formakuntza eta herrira begirako ekimenen antolaketa uztartuz aritu gara. Aurrez aipatu ez dudan arren, esan beharra dut taldeko partaideak berezko lagunarte bat izateaz gain, gehienak neskak direla (bat izan ezik) eta 15 urte zituztela taldea martxan jarri genuenean.

Ibilbidean, hasierako koadrilakoak ez ziren gazte batzuk sartu dira taldean. Hauetako bi urtebete nagusiagoak dira, eta beraien kabuz hurbildu ziren taldera, egiten genuen lanagatik interesaturik. Beste bi, bi urte gazteagoak dira, eta hauek Ixotuko koordinatzaileak gonbidaturik etorri ziren. Taldekideen profila aberasteko aukerarik ez dugu izan, laurak neskak baitira.

Taldeak jende gehiagorekin elikatzen joatea beharrezkoa ikusten dugu, eta hori bideratzeko Gaztelekua darabilgu: bertako hezitzaileek "lanbro" lana egiten dute erabiltzaileekin; hau da, Ixotu taldea badela azaldu eta euskararen inguruan sentsibiltate berezia dutenak identifikatzen dituzte. Ostean, gurekin afaltzera gonbidatu eta zertan aritzen garen azaltzen diegu. Azkenik, hurrengo bileretara etortzeko proposamena egingo genieke.

Orain arte, behin bakarrik saiatu gara berezko lagunarte bat taldean sartzeko, eta egia esan ahaleginari ez genion jarraipen handirik eman. Izan ere, taldeak lehenengo urtetik hona pultsu

⁵ Gunea Eskoriatza eta Aretxabaleta artean kokatu arren, Arrasateko gazte askok ere bertan ikasten du: alegia, hiru herrietako gazteak elkartzen dira ikastetxean.

⁶ Txatxilipurdik kudeatzen du Eskoriatzako gaztelekua.

pixka bat galdu du: ez gara jarraikortasun berarekin bildu, eta antolatutako ekintzak ere gutxiago izan dira. Honen aurrean, Ixoturen funtzionamenduari aldaketak egiten joan zaigu azken urte erdia, hala nola: biltzeko tokia aldatu, bilera gutxiago baina emankorrakoak egin...

Gauzak horrela, jakin badakigu hurrengo ikasturtean lehentasuna izango dela taldea kide gehiagorekin gaztetzea. Horrek taldea aberasteaz gain, oraingo taldeak batxilergoa amitutakoan hartu dezakeen erabakiaren aurrean babestuko gaitu.

2.2.3- Antolamendua

Batetik, aste barruan dinamizatzaileak (kasu honetan ni) eta koordinatzaileak (gazte-lekuan hezitzailea da eta herrigintzan aritua) bileratxo bat egiten dugu. Bileraren helburua aurreko astean egindakoak komentatu eta hurrengo astekoa antolatzea da.

Bestetik, ostiral ilunkaretan, gazte-lekuan bilera egiten dute gazteek eta dinamizatzaileak. Tokia, eguna eta ordutegia aukeratzeko orduan, hauek izan dira irizpideak: tokiari dagokionez, beraiek ezagutzen zuten leku bat izatea lehenetsi zen, erosotasuna irizpide hartuta, eta egunari zein ordutegiari dagokionez, ostiraletan egiteko gutxiago dituzte eta gazte-lekuak itxi arte itxaron beharra dugu(ostiraletan 20:30tan ixten du).

Bilera hauetan, gazteen iritziak du lehentasuna; hau da, lehenengo eta behin, beraiek dituzten ideiak entzuten dira, eta, bideragarriak badira, hauekin aurrera jotzen saiatzen da. Ideiarik ez balego, aldezturiko bileran irudikatutako ideiak aurkezten zaizkie, eta, beraiek egoki ikusiz gero, lanean jartzen gara.

Urtean zehar, bilera desberdinak egiten ditugu (hezitzaileak eta koordinatzaileak) udaleko euskara teknikariarekin. Hauen helburu nagusia da taldea zertan ari den jakinaraztea; hala ere, beste asmo batzuekin ere egin dira bilerak, esaterako, ekintza bat udalaz lankidetzan antolatu denean edo momentu jakin batean beste iritzi bat bilatzen zelako.

Funtzionamendu honek aurtengo urte hasieraraino iraun du. Lerro batzuk gorago aipatu dudana gisa, azkenaldian beste funtzionamendu bat darabilgu. Batetik, koordinatzaileak egiten diren bilerak askoz gutxiago izan dira, bakarrik momentu puntualetan; bestetik, esan bezala, bilera gutxiago egin ditugu gazteekin; eta, azkenik, elkartzeko ordutegia eta lekua ere aldatu ditugu, orain kultur etxean elkartzeko baikara eta lehen baino goizago. Kultur etxean elkartzeko, euskalgintzako beste eragileekin (Hankamotz bertso-eskola eta Auzoko) konpartitzen dugu espazioa; uste dugu, honela, sinergiak sortzeko aukerak izango direla.

2.3.4-Antolatutako ekimenak

Ondoren, Ixotuk aurrera eramandako zenbait ekimen aurkeztuko dira, ordena kronologiko bati jarraiki.

- 2014ko Euskara Eguna: Eskoriatzako Hankamotz bertso-eskolarekin batera, bertso-bazkaria antolatu zen. Bide batez, Ixotu taldeak jende aurrean aurkezteko aukera izan zuen.
- “Postaka”, korrika Eskoriatzan: 2015 urtean Korrika ospatu zen, Euskal Herrian. Hasiera batean, Eskoriatza herri barrutik pasatzeko asmorik ez zegoen; azkenean, sartu-irten bat egitea lortu zen. Ordurako, Eskoriatzan “Postaka” antolatzen hasita zeuden: herriko kaleetan zehar korrika egin zuten hemezortzi bat eragilek eta herritar askok.
- “Ferixie 2015”, kantuan: Ekaineko lehengo zapatuan, urtero, artisau eta nekazari feria egiten da herrian. Eguerdian, herri bazkaria egiten da, eta, bazkari osterako, kantu-liburuxka bat sortu zuen Ixotuk denen artean abesteko.
- 2015ko Euskararen Eguna: Abenduaren 3ko ilunkaran, kriseiluak bota zituzten zerura herritarrek. Hauek euskararen aldeko mezuekin hornitu zituzten aurrena.
- Euskalkiko berbak: Urte bereko aste berean, Eskoriatzako euskalkiko berbekin bideo bat grabatu zen. Herritarrei euskalkiko hitzak aurkeztu eta ezagutzen zituzten galdetu zitzairen.

Ttak!ek antolatutako zenbait ekimenen modura, ekintza batzuk barnera begira antolatu dira. Horien helburuak izan dira taldea sendotzea, beste eragile batzuk ezagutzea, adin bereko euskaltzaleak ezagutzea, taldekideak formatzea eta, noski, ondo pasatzea.

Ostiraletako zenbait bilerak ere asmo bera izan dute; izan ere, beste ekintza bat antolatzeko eginbeharrak ez zegoenean, elkartu, jolastu, afaldu eta kontu kontari ibiltzen gara. Hala ere, badira izaera honetako jarduera berezi batzuk; aipagarrienak azalduko ditut:

- Galartzako asteburua: 2015an Galartzako baserrira (Arizmendi ikastolak alokatzen du) joan ginen asteburua pasatzera. Egonaldian, hainbat eragileren bisita jaso genuen: Eskoriatzatik Aitzorroitz kultur elkarte, Auzoko, euskara teknikaria, Aretxabaletatik gazte taldea... Formazioa eta aisialdia uztartu genituen.
- Arrasateko eta Aretxabaletako euskara taldearen bisita: Ostiral ilunkara batean, batera afaldu genuen beste herrietako gazte taldeekin. Aurrerantzean, lankidetzan zer antolatu genezakeen ere hausnartu genuen. Esan daiteke, harreman hauen fruitu bezala jaio dela aurrez aipatutako Euskal Herriko gazte euskaltzaleen topaketa.

2.3-TXIKUPLEITTUAK (Bergara)

Bergarako taldea Aranzadi ikastolaren baitan sortu zen, eta honek zenbait ikastetxetan egon diren Euskara Batzordeen inguruan lau hitz idazteko aukera ematen digu.

2.3.1- Aurrekariak: Ikastetxeetako Euskara Batzordeak

Iñaki Eizmendik dioen moduan, “Aspalditik izan dira gazteen euskara batzordeak institutueta; institutu askotan daude. Baina joera normalean izan da, erabat bideratuak izatea. Askotan izaten da: gela bakoitzetik ordezkari bat aukeratu, Agenda 21ekoa dagoen bezala, euskarakoa. Hartu hamabost-hogei ikasle, batek daki zer motibazio daukaten izena emateko, eta irakasle bat arduratzen da hori bideratzeaz”.

Bide honetatik, inertziaz jokatzen dela adierazten digu Eizmendik, “Euskararen eguna dator, eta hau antolatu behar da; ez dakit zer dator, eta hori antolatu behar da...”. Euskara batzorde horien jarduna guztiz bideratua izaten da.

Eizmendiren iritziz, Euskara Batzorde hauek “leku batzuetan ondo, baina nik uste ez dutela jokorik ematen”. Bergarako adibideak, eredu honen alboan, zenbait berrikuntza dakartza: interesa dutenekin osatzen da Batzordea; erreferente izango dira bere parekoentzat eta gazteagoentzat; baina, beraiek ere erreferente bat (dinamizatzailea) izango dute. Ikus dezagun zertan datzan taldeak.

2.3.2- Txikupleittuen sorrera eta bilakaera

Taldea sortzeko abiapuntua 2015. urtean kokatzen da. Udalaren eskariz, Iñaki Eizmendik martxan jarri zuen taldea sortzeko dinamika. Prozesu hau herri desberdinetarako balekoa den arren, herri bakoitzeko bereizgarrietara moldatu beharrekoa da. Hurrengo lerroetan, prozesu hori zein berau oinarritzeko hausnarketa azalduko dira:

Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragiten duten eragile gertukoak lau (Gurasoak, ikasleak, eskola orduz kanpoko jardueretarako hezitzailea eta gazteak) direla kontuan hartuta, eragile bakoitzarekin lan egitea eta bide bakoitza indartzea estrategia egokia zela ondorioztatu zuten.

Eragile horien artean, gazte atalean zentratzea pentsatu zuten, egitasmo zehatz batekin: Gazteen Euskara Batzordea sortzea. Hiru helburu betetzea aurreikusten zuten: bat, Batzordeko kideen artean euskara finkatzea; bi, inguruko gazteengan eragitea, eta hiru, txikiagoentzat erreferente izatea.

Parte hartu zuten gazteak euskararekin sentsibilizatuak zeudenak izango zirela argi zuten, baita hauen adin tartea zein izango zen ere: 16-18 urte bitarteko gazteak, alegia, DBH4 eta Batxilergoko ikasleak. Taldeak ikastetxearen eta herriaren arteko zubia eraikiko luke: gazteak ikastetxeko ikasleak lirateke eta jarduera batzuk bertan egingo lituzkete, baina, gazte horiei

eskualdeko erreferenteak eskainiko litzaizkieke, etorkizunean, ikastetxeko ibilbidea amaitutakoan, euskara eragileekin harremana izaten jarraitzeko.

Ildo horretatik, lehenesten zen Batzordearen dinamizazioa Euskara Elkartek bere gain hartzea. Gainera, dinamizatzekeo ardura hartuko lukeen pertsona gazteentzat erreferente izatea lehenetsi behar zela argi zuten. Nolabait, gazteentzat gertukoa eta erakargarria izan beharko luke dinamizatzailerak.

Oinarri hauen gainean, ikastetxeko taldeekin bi saio egin zituzten, euskararen erabileraren inguruan hausnartzeko. Dinamikekin amaitutakoan Euskara Batzordean parte hartzeko gonbitea luzatu zitzairen.

Koadrila batek, berezko lagunarte batek gonbiteari baiezkua eman eta taldeari forma ematen hasi ziren, esaterako, taldearen izena pentsatzen: Txikupleittuak. Ordutik, urtebete baino gehiago daramate ekintza desberdinak antolatzekeo biltzen eta euskalgintzan formatzen. Aurreko taldeekin egin dudana gisara, gazte hauen profilak ere zehaztu behar ditut, eta esan beharra dago, oraingoan ere, taldekide gehienak neskek direla, pare bat kide izan ezik.

Gainera, taldeak gazte gehiagorekin elikatzen joan behar duela argi dute, eta, horretarako, ikasturte honetan, aurrez aipatutako dinamika errepikatu dituzte urtebete gazteagoekin. Kasu honetan, dinamiketan Txikupleittuak taldeko kideek ere parte hartu dute, eta gonbidapenari indarra eman diote, azken finean urtebete gazteago diren horiendako erreferente baitira.

Oraingoan ere, neska koadrila batek baiezkua eman dio gonbidapenari, eta bilereetan parte hartzeari ekin diote.

2.3.3- Antolamendua

Txikupletuak taldeak bi dinamizatzailerak ditu, egun; bi hilabete geroztik, ordea, ditu bi dinamizatzailerak, orain arteko bakarra egon baita. Azken hau Jarduneko⁷ beste proiektu batzuetan ere murgildurik dago, azken orduan gehitu den, aldiz, ez.

Gazteekin, bi astean behin elkartzen dira bi dinamizatzailerak, eta, aldez aurretik, bilera horretan jorratuko diren gaiak zehazturik eramaten dituzte. Bestalde, ikasturte hasieran zein amaieran koordinatzailearekin (Jarduneko kultura eta sentsibilizazio arduraduna) egiten dute bilera bana. Hala ere, beste lanordu batzuetan dinamizatzaileraren eta koordinatzailearen arteko harremana zuzena denez, momentu horiek ere baliatzen dituzte taldearen inguruko gaiak komentatzeko, bilera formalik egin ez arren.

Taldeak duen beste berezitasun bate ere aipatu beharra dut. Taldeko kideak, nolabait esatearren, bi azpimultzotan banatuta daude: batzuk, ekimenetan parte hartzen dute, soilik; besteek, ekimenetan parte hartzeaz gain, hauen antolaketan ere hartzen dute parte.

2.3.4-Antolatutako ekimenak

⁷ Jardun: Bergarako Euskara Elkartea

Txikupleittuen zenbait ekimen ere, modu kronologikoan azaltzen saiatuko naiz. Oraingoan, kanpora begirako ekimenak, soilik, nabarmenduko dira hurrengo zerrendan:

- Jaietan, euskararen aldeko pankarta eta murala: Taldea sortu berri, Bergarako jaietan, herriko txoko desberdinak pankarta desberdinez eta mural batez atondu zituzten. Hauetan, euskararen aldeko mezuak ageri ziren.
- Bideoa: Ikastetxean euskararen eguna: Lehengo bideoa ikastolan egin zuten, euskararen egunean. Aranzadiko ikasleen laguntzaz, gorputzen bitartez, jolastokian mosaiko bat eraiki zuten. Goitik grabatuta, jendea nola kokatzen zen eta guztien artean sortutako mezua irakur zitekeen: “Euskaraz bizi eta ikasi nahi dut”
- Bideoa: euskarazko hitz politena: Bigarren bideo honetan, bergararrei galdetu zieten zein zen beraientzat euskarazko hitz politena edo gustukoena. Bideoan, herritar askok hartu zuten parte.
- Porrotxen bisita eta solasaldia: Ikastolan, euskaldun erreferente baten hitzaldi bat antolatzeke asmoa zuten. Hitzaldia emateko, Porrotx pertsonaia egokia izan zitekeela pentsatu eta berarekin jarri ziren kontaktuan.

Ikastolan, Porrotxekin egoteko bi txanda antolatzea aurreikusi zuten: bata, DBH4ko ikasleei zuzendua eta bestea, Batxilergoko lehengo urteko ikasleei. Nahiz eta aurreikuspen hori izan, azkenean, hitzaldi bakarra egin behar izan zuen. Izan ere, maila guztietako ikasleek egon nahi izan zuten berarekin, eta, denbora asko eman zuen ikastetxeko gaztetxoak agurtzen. Ekimena oso arrakastatsua izan zen.
- Txosnetako txanda bete: Aurtengo jaietan, beste herrigintzako taldeekin harremanetan, txosnetako txanda bat bete dute.
- Jarduneko postua bigarren eskuko azokan: Bergaran, bi hilean behin, bigarren eskuko azoka ospatzen da. Jarduneko postuan Txikupleittuetako gazteak egon ziren, eta lortutako diru-sarrerak taldeak jaso zituen. Ekimen honen bidez, autogestiorako esperientzia bat bizi izan zuten.
- “Moskeo” Kanpaina: Azken aldian, ekimen honetan murgildurik dabilta. Hiru fasetan gauzatuko duten kontzientziario kanpaina bat da: lehengoan, Bergarako euskarazko hitz desberdinak idatzi dituzte, herriko gune desberdinetan; bigarreanean, hitz berberak esaldi desberdinetan erabiliko dituzte aurrez hitz bakarrik

zegoen gunean, eta hirugarrenean, hitzen sinonimoak jarriko dituzte bertako hitzaren ondoan.

3.- HAMAIKA OZTOPO ETA AUKERA

Talde bakoitzaren inguruan idatzi dudanean, bidean izan diren oztopo eta aukera batzuk agerian geratu dira. Hauetaz sakontasunez hitz egiteko hurrengo atala baliatuko dut.

Aipatuko direnetako batzuk aspaldi identifikaturik nituen; beste batzuk, ordea, eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketak egiterakoan azaleratu dira. Hala ere, oztopo eta aukera batzuen inguruan beste batzuen inguruan baino hausnarketarako elementu gehiago bildu direnez, luzeago joko dut batzuekin.

3.1- ZAILTASUNAK ETA OZTOPOAK

3.1.1- Taldearen jarraipena

Ikertu ditudan hiru taldeetatik bik, oraindik, ez dute taldearekin jarraitzeko zailtasunik izan. Taldeek urtebete pasatxo eta bi urte daramatzate martxan, hurrenez hurren, eta ez da hausturarik egon; alegia, ez dute taldekide guztiek momentu berean talde utzi. Arrasateko taldearen kasuan, aldiz, lauzpabost bider gertatu den fenomeno da.

Errelatua osatzeko erabilitako dokumentuen artean, hamarkada pare bat atzerago AEDko Gazte Sailaren parte izan ziren pertsonekin egindako saio batzuetako hausnarketak erabili dira (“Laborategia” bezala bataiatu zituzten saiook). Horien bidez, jakin nahi zuten berriz ere gazte talde bat martxan jartzeko ze gauza hartu behar zituzten kontuan. Ondorioen artean, kideek taldean pasatzen zuten denboraren inguruko gogoeta bat aurkitzen da:

–“ZIKLO INTENTSU BAINA LABURRAK: Gazte taldeetako kide ohiek hiru bat urteko zikloak bete zituzten elkarte barruan. Gehien irauñ zutenek, bost urte, talde eta funtzio ezberdinetan aritu zirelako irauñ zuten horrenbeste. Gure talaiatik begiratuta, hiru urte denbora gutxi dela eman dezake, baina, kontuan hartu behar adin horretan dena bizi dela intentsitatez, dena dela behin-behineko, egunetik egunera aldatzen direla gazteen interesak, harremanak, beharrak...”

Kontutan hartu behar dira datuok. Gainera, Eskoriatzako taldean ere, horrelako zerbait gerta daitekeela sumatu daiteke beraien esanak kontuan hartuz gero: Ixotuko kide batek botatu zuen “ nik, bi urtetara, kanpoan ikasten badut ez dut Ixotura etortzeko gogorik izan behar” , eta beste batek “eske, egon behar gara Leire eta ni bakarrik” botatu zuen, jadanik badakielako beste taldekideek kanpoan ikasiko dutela, ziurrenik. Kanpora joate hori eta taldean jarraitzea uztartzeko zailtasunak ikusten dituzte.

Hiru urtero –edo denbora tarte laburragotan– talde osoa aldatzeak (Arrasaten gertatu den bezala) alde positibo eta negatiboak ditu: positiboak dagokienez, hiru urtetan koadrila batek jasotako formazioarekin, bere inguruko pertsonengan eragiteko tresnak jaso ditzake, hau da,

beste gazte batzuen erreferente izateko baliabideak; baina, negatiboei begira jarrita, hiru urtero taldea aldatuz, ezinezkoa da talde autonomo iraunkor bat mantentzea eta, ondorioz, elkarleen jarduna elikatzea.

Hiru urtero taldea utzi eta zerotik ez hasteko modu bakarra, ondorengoa delakoan nago: belaunaldi eta koadrila desberdinekin taldea osatzea. Izan ere, kideetako batek taldea uztea ez da arazoa; arazoa bilakatzen da kide guztiek uzten dutenean. Baina, errelatuek erakusten duten moduan, egun, taldeak koadrila batez osatuta daude, gehien gehienean.

Lehenengo oztopo honekin bigarrenera heldu gara: koadrila nagusi horretakoak ez diren norbanakoen integrazioa.

3.1.2- Belaunaldi eta taldekide berrien integrazioa

Errelatuetan ikusi dugun modura, batez ere Arrasateko kasuan, belaunaldi eta taldekide berriak lehenago taldea osatzen zuen lagunartean integratzeak arazoak ekarri ditzake. Beste taldeetan, halere, arazo edo zailtasun horren zantzuak ere aurkitu ditugu.

Orokorrean, nerabeen artean ohikoa den arazo bat dela esango nuke; hau da, berezko lagunarteak nahiko itxiak izaten dira, eta hauetako kide ez diren pertsonak integratzeko orduan zailtasunak daude, are gehiago, integratu behar diren horiek besteak baino gazteagoak badira. Izan ere, gehienetan 15-17 urte bitarteko gazteak goiko erreferenteei begira egoten dira eta ez gazteagoei.

Ibilbide luzeena duen heinean, Ttak!ek eskaintzen ditu arazo honen inguruko adibide argienak. Maite Agirrek bizitako zenbait esperientzia gogoan ditu, adibidez, Ttak! barruko bi koadrilen arteko lehia nahiko gogorra: “egon zen garai bat bi bilera paralelo egiten genituen”. Edo taldera pertsona jakin bat gonbidatu behar zutela entzutean jada taldekidea zen beste batek izan zuen erreakzioa: “Ba, hori taldera baldin badator, nik utzi egingo dut”.

Bestalde, aipatu dudan bezala, gazteagoekin taldea konpartitzea nahi ez dutela agerian geratzen da. Esaterako, Agirrek dio, Ttak! egunera bi urte gazteagoak etorri behar zirela jakin zutenean, kide batzuk festa bertan bera uztekotan izan zirela. Txikupleittuetako kideetako batek onartzen du, urtebete gazteagoak taldera batzearen inguruan, “hasieran ez genuen nahi etortzerik, nahiago genuen guk jarraitzea”, eta, hurrengo urtean bi gazteagoak etorriko direla ikusita, batek gehitzen du: “ni ez naiz ikusten bi gazteagoekin”.

Hala ere, Txikupleittuetako kideek harreman ona dutela onartzen dute eta euren arteko giroa sortzeko aukerak ere egongo direla: “bileretara etortzen badira eta juntatzen bagara, sor daiteke giro ona”. Gainera, kontziente dira jende gehiago taldean sartuko dela eta taldeak duen horren beharraz, Ixotuko kide batek bota zuen “jende gehiago fitxatu beharra dugu”.

Bergarako zein Eskoriatzako taldeetan, gonbidatutako gazte horiek, taldera beranduago heldutakoak, ez dira bileretara maiztasun berdinez agertzen. Eztabaida taldeetan jarrera horren inguruan egon zitezkeen arrazoiengatik inguruan hausnartu zen, eta hauek izan ziren plazaratutako ideia batzuk: “nik uste dut aspertu egiten direla” (Ixotu), “ez zuten hainbeste

bilera espero" (Txikupleittuak), "eske gure koadrila dago osoa..."(Ixotu) eta "hasieran, bastante lotsatuta zeuden".

Gainera, Ixotuko kide batek onartzen du nagusiagoz osatutako taldeetan sartzea ez dela erraza. Txosna Batzordetako bileren harira, joateko izaten duten lotsa nabarmentzen du: "guretzat ez da erraza, txikia izatea eta bat-batean sartzea... oraindik ere kostatu egiten zaigu".

3.1.3- Erakargarritasun eza militantziarako eta beste talde batzuen eskaintzak

Egun, Euskal Herriko gizarte zibilak bizi duen egoera hamarkada batzuk atzera bizi zuenaren ondoan bestelakoa da. 2000. urtean, Joxemi Zumalabe fundazioak burututako ikerketa batetik Mario Zubiaga EHUko irakasleak "Euskal gizarte zibilaren ahotsa eta egungo ezaugarriak" artikulua idatzi zuen. Iruditzen zait bertan aipatzen diren kontu batzuk gure gazte taldeekin loturik aurkitzen direla, euskal gizartearen argazki zorrotza egiten baita.

Batetik aipatzen da konformismoa gizartea bustitzen hasia zela: "Konformismoa areagotu egin da, gauzak aldatzeak gero eta zailagoa dela ematen du". Eta ondorio horren atzean, aldaketa sozioekonomikoak ekarritako –masa-kontsumoan, erosotasunean eta indibidualismoan oinarritutako– bizimoldeak daudela adierazten da. (Zubiaga, 2002: 482)

Militantziaren inguruan ere, kontuan hartu beharko genukeen aipua ageri da: "militantzia klasikoa behin gaindituz gero, atsegin pertsonal hori eskaini behar dute taldeek, masa-kontsumoaren gizartean bizirik iraungo badute". Eta artikuluan berean beste ideia garrantzitsu bat nabarmentzen da: "Jendeak bere hurbileko interesen arabera planteatzen du bere gizarte jarduera eta bere militantzia". Militantzia beste aisi modu bat bezala planeatzen dela diosku lan honek. (Zubiaga, 2002: 483)

Bat edo batek esan lezake, lan horiek helduen militantziaz jarduten duen neurrian ez direla gure taldeentzako guztiz aplikagarri edo, are gehiago, gizarteko aldaketa horiek ez direla txoko guztietara heldu. Gazteengan, aldaketa hauek nagusiengan baino eragin handiago dutela esango nuke, eta ideia hori baieztatzen duen aipua aurki genezake "Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika" lanean, horrela baitio Kuadrillategi egitasmoari buruzko txostenean: "Hizkuntz militante egin nahi izan ditugu euskaldun gazteak, militantzia bera desagertzen ari den gizarte batetan". (Gonzalez, 2008: 9)

Azken hau gure taldeetan aurrera eraman nahi dugunarekin hertsiki loturik ikusten dut, eta kontuan hartzekoa da gazteei gauzak exijitza orduan. Aisiak jardunaren ardatz izan behar duelako nago, eta lehenengo premisa taldekideek jardunaz gozatzea izango da. Hala ere, ezin ahaztu daiteke gizarteak, orokorrean, beste norabide batean garamatzala, eta dinamika indartsu horien aurka arraun egitea ere tokatuko zaigula.

Hau gutxi balitz, Arrasateko taldean, orain arte esandakoekin lotu daitekeen fenomeno bat ere topatu dugu: Ttak!eko kideak herrigintzako beste eragile batzuetara joaten dira.

Arrasaten, Gaztetxea, Ernai, Ekin, Euskal Herrian Euskaraz zein beste zenbait eragile aktibo daudenez, Ttak!eko kide batzuk talde horietan amaitu dute.

Eragile horiek konparatuz gero, erakargarritasunari dagokionez, printzipioz, euskalgintzak gaztetxe baten alboan galtzeko probabilitateak dituela esan genezake. Iñaki Eizmendik alderaketa horretan galtzeari arrazoi bat ikusten dio: "erreferente gehiago ere badituztelako (gaztetxeak)".

Gure lana izango da euskalgintzako jarduna erakargarri bilakatzea eta erreferenteak eskaintzea. Ondoren etorriko dira hori lortzeko klabe batzuk.

3.1.4- Ardi beltz sentitzea

Erakargarritasun falta hori eragiten duten arrazoi batzuk komentatu ditugu aurreko atalean, eta ikusi bezala zerbaiten alde eragiteko hautua (militantziarena) ez da egungo gazteek hartzen dutena, nagusiki. Horregatik, hautu hori hartzea, artalde barruan, ardi beltz sentitzeko arrazoia izan daiteke.

Gogoan ditut Ixotuko taldekideek kontatutako zenbait anekdota: burla modura "jarraitxo" edo "sekta ixotu" deitzen omen zieten gelakide batzuk. "Jarraitxok" urte batzuk atzeragoko Jarrai erakundeari egiten omen zion erreferentzia; nolabait, Ixotuko partaide izateak ezkertiar eta abertzale bilakatuko balitu bezala. "Sekta ixoturen" ostean ere, ez dago misterio handirik. Badirudi taldea sekretismoan murgildurik ikusten dutela, eta, beharbada, guk ere izango dugu horretan zeresanik.

Arrasateko taldekideen beste anekdotaren bat ere entzuna dut, baina, gogora ez datorkidanez, hobe ez aipatzea, gaizkiulertuak ekidite aldera.

Egia esan ez da arazo oso kezkarria; azken finean, broma antzean esaten omen zizkieten hitz hauek. Gainera, gai hau eztabaida taldeetan mahai gaineratu genuenean, ez ziren ideia ezkorrak azaleratu: Txikupleittuak taldekoek zuzenean ezetz erantzun zioten "horrelako esperientziarik bizi izan duzue?" galderari, eta Ixotukoek, aipatutako anekdotak gogoraraztean eta horri aurre nola egin galdetzean, esan zuten "inoratu egiten ditugu".

Hala ere, badakigu nerabea (orain arte gazte deitu ditudan arren, nerabegarorik gertu daudela esan daiteke) ezinegon puntu baten aurkitzen dela, eta zer den eta zer izango den erabakitzeko momentuan aurkitzen dela, eta jakina erabakiko duena inguruneak baldintzatuta erabakiko du (Funes, 1997). Horregatik, adin horietan inguruneak zeresan handia izango duenez, horrelako egoerak tentuz jarraitu beharko ditugu.

3.1.5- Motibazio eta konpromiso maila desberdinak: denboran zehar eta kideengan

Nerabeekin lan egiteak baditu berezitasun batzuk. Nerea Gonzalez Gilek ohartarazten duen moduan, “gora behera asko izango dira , eta aldaketa asko izan daitezke gogo eta interesen inguruan”.

Ixoturen bi urteko ibilbidean garbi ikusi dut: denboran zehar gorabehera asko izan dituzte motibazioan; gai batzuen inguruan inplikazioa handia egon da eta beste batzuen inguruan ez; bilerak egiteko behin eta berriz gogorarazi behar zaie...

Txikupleittuetako dinamizatzailleak ere taldearen ahulgune pare bat aipatzeko eskatuta, dio: “Ekintza bat aurrera eramateko eta bilerak egiteko, derrigor, dinamizatzailleak gainean egon behar dira, momentu oro”.

Gainera, animo eta motibazio mailak denboran zehar bakarrik ez, kideen artean ere desberdinak dira. Normala da denek euskararen inguruan kontzientziazio maila berdina ez izatea, eta, gainera, aztertutako hiru taldeak berezko lagunarteek osatzen dituztela ikusita, batzuk taldera etortzen dira lagunartean egoteko. Maite Agirrek ere, berekin egon zen lehenengo taldeari erreferentzia egitean dio: “batzuk hemen zeuden koadrila zegoelako”.

Jende hori taldera hurbiltzea oso positiboa da, baina, kasu batzuetan, motibazio maila baxu samarra bada, taldearen funtzionamendua oztopa dezake. Kontua da, egoera hauek kudeatzen jakitea eta guztien motibazioak piztea.

3.1.6- Lan autonomia noraino?

“Taldearen jarraipena” atalean, AEDk gazte saileko kide ohi batzuekin egindako saioak ekarri ditugu lanera. Lehen, *ziklo intentsu baina laburrak* ezaugarria aipatu bada, oraingoan saio haietako parte hartzaileek nabarmendutako beste bi ezaugarri ekarriko ditugu:

-“ASKATASUNA: euren ekimenak aurrera eramateko autonomia zuten”

-“AUTO ANTOLAKETA: gazteek sortua, gazteentzat.”

Ezaugarri biok gazteentzat erakargarriak direla ezin ukatu daiteke. Hala ere, lan autonomo horrek mugarik izan ezean, taldearen helburuetatik aldentzen amaitu genezake; hau da, antolatuko liratekeen zenbait ekimen euskararen erabilera areagotzera bideratuta egon beharrean, beste helburu batzuekin antolatuko lirateke.

Adibidez, Ixoturekin egindako eztabaida taldean, ze ekimen antolatuko luketen galdetuta arrakasta gehien izan zuen proposamena “Ixotu eguna” edo antzeko zerbait antolatzea izan zen. Printzipioz, planteamenduak oso egokia dirudi, kontua da egun horretako egitarauan kontzertuek eta parrandak zutela protagonismoa, eta, ez zeuden bereziki beste asmo batzuk lortzera bideratuta, besterik gabe jai hori antolatzea zen helburua.

Ildo beretik, Ttaklen sortutako arazo baten berri eman daiteke. Taldekideak, adin txikikoak direnez, ez dira AEDko bazkide, eta, ondorioz, ez daukate elkarteko funtzionamenduan sartzeko aukerarik. Horrek zenbait gairen inguruan iritzia eman nahi baina emateko aukerarik ez izatea ekarri du. Adibidez (AEDen gertatutako kasua da), atxikimendu bat heltzen bada

elkartera sinatzeko eta gazte taldeak iritzi bat badu eta elkarteko zuzendaritzak beste bat, talkak egon daitezke, nahiz eta azkenean zuzendaritzako iritzia gailenduko den.

Arrasateko dinamizatzaileak onartzen du egoera konplikatu dela: “zuk lan-talde bat sortzen duzu, eta noraino uzten diozu autonomo izaten?”

Aztertutako beste bi taldeek ez dute horrelako egoerarik bizi izan; batetik, Ixotuk ez duelako bere gainean inolako atzerik, ez dago elkarre baten pean; bestetik, Txikupleittuetako kideek beraien taldea guztiz autonomotzat daukate –nahiz eta jakin Jardunekin lotura badagoela: dinamizatzailea elkarteko langile ere bai baita–.

3.1.7- Dedikatzeko denboraz justu samar

Egungo gazteek nahiko agenda beteak dituztela begi bistakoa da. Batxilergoak eskatzen duen esfortzuaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak desberdinetan izena ematen dute: ingelesa dela, kirolen bat dela, musika dela... larri ibiltzen dira denbora aldetik.

Ixotuko gazteekin gertatu zitzaidana, esaterako, zera izan da: ostiraletako ilunkarak taldeak elkartzeko erreserbatu zituzten, guztiek hala erabakirik; ikasturtea aurrera joan zen heinean, aldiz, ostiral arratsaldeetan ere sortu zitzaizen egitekoa, kasu honetan, begirale eskola. Ostiraletatik beste egun batera pasa behar izan genuen bilera, baina, noski, ordutegi berri horrekin guztiek ezin izaten zuten etorri.

Monitore eskoletan zein beste jardueretan parte hartzea guztiz positiboa dela aintzat harturik, horrelako egoerak aukera modura ikustera behartuta gaude. Alegia, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo egiten dituzten jarduerak balia ditzakegu sinergiak sortzeko eta euskararekiko hartu duten hautua beste eremu horietan ere aplikatzeko.

Txikupleittuetako kideen esanetan, gaur egun, ez dute denbora eskasian taldearen funtzionamendurako oztoporik ikusten, bi astean behin ordubete libratzeko aukera guztiek dutela ikusten baitute.

Hala ere, onartzen dute urtebete gazteago direnekin (taldekideekin) koordinatzeko zailtasunak agertu direla, ikasketa ziklo desberdinetan daudenez, egutegia ere bestelakoa baita: “adibidez, gu orain oporretan gaude, eta aurreko asteartean elkartu ginen *moskeo* kanpaina egiteko eta gazteagoak ezin ziren etorri (...) elkartzeko zailagoa da”. Gainera, dinamizatzaileari propio eginiko galderatxo batzuetan, talderen ahulgune pare bat aipatzekotan zein aipatuko lituzkeen galdetuta, beste ahulgunea (aurrez ikusi dugu bata) honakoa izan zen: “denbora falta, ikasketez aparte bestelako hainbat proiektutan parte hartzen baitute (dantza, kirol ezberdinak, ingeles eskolak, kilometroak,...).

Horri gehitu behar zaio, oraindik, taldeetan, denborari dagozkion egoera konplikatuena heldu daudela, eta horren adibidea dugu Arrasateko Eusberdin. Izan ere, adin tarte horietan –18 urtetik beherakoak eta 18tik gorakoak– desberdintasun nabarmenak daude eta Maite Agirrek ere iragartzen du: “16 urterekin ostiralak libre dituzu, (...) baina ia pasatzen zarenean

adin tarte nagusiagora, edo ikasten zaude, edo lanean zaude, eta konpromisoa askoz arinagoa izan behar da.”

3.2- INDARGUNE ETA AUKERAK

Zailtasun eta oztopoak aipatu ondoren, norbaitek aurpegiratu dezake indar-gune eta aukeren zerrenda askoz laburragoa dela. Egia esan, hortaz kontziente naiz; identifikatutako zailtasunak aukera edo indarguneak baino gehiago dira, baina lehenek fenomeno puntualagoei eragiten zien bitartean, azken hauek orokorragoak dira; indar handiagoa dute, eta ez dira, hortaz, maila kuantitatiboan alderagarri.

3.2.1- Freskotasuna eta ilusioa: aurreko molde gabe

Era honetako taldeak euskalgintzarendako haize freskoa direla esango nuke, eta ez da baieztapen puztua. Azken finean, euskalgintzaren bueltan dabilzan pertsonen adina aurrera joan da azken urteotan, eta horrelako gazte taldeak martxan izatea zorte handia dela esan genezake.

Errelatuan aipatu dudan moduan, gazteekin egiten ziren zenbait lanketa guztiz bideraturik zeuden, eta, gainera, inertziak jotzen zutela esatea ere ez da ahoberokeria. Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako taldeek, berriz, ez dute inertzia hori ezagutu beharrik, eta dinamizatzailen lana izango da beraien sormena baliatzea. Ezin ditzakegu aurrez sortutako molde horietan sartu, dakarten freskotasuna aprobetxatu gabe.

Bestetik, talde giroa edo talde izaera hori sortzen denean, gauza askotarako gai izan daitezkeela argi dago. Ideia hau azpimarratzen du Maite Agirrek, eta Txikupleittuetako dinamizatzaila Irati Alberdik ere ezaugarri beraren gainean jartzen du enfasia, indargune edo aukera bat nabarmentzerako orduan: “ilusioa daukate; herri mailan gauzak egiteko gogoia dute; eta talde izaera oso barneratuta dute (txikupleittu izateaz harro daude)”.

3.2.2- Autonomia gidatua

Izenburuak kontraesankorra irudi lezake. Gainera, arazo eta oztopoen atalean, autonomiaren arriskuak azaldu ostean, berau aukera bezala definitzeak zentzurik ez duela lirudike. Baina bada honetarako azalpenik.

Kontua da, ikusi bezala, beraiei nahi duten egitasmoa antolatzen utziz gero –Ixotukoei, bederen– euskararen erabilerari bultzada ematek urrun samar egongo litzatekeela horren helburua. (Onartu beharra dut, planteamendu oker horretan nik zeresana dudala, gero ikusiko dugun moduan).

Dinamizatzailak, aldiz, beraiek proposatuko dituzten gauzak aurreikusi ditzakegu, eta hortaz beste proposamen batzuk egitera bideratu. Lortu nahi den helburuaren bidean jarri ditzakegu modu desberdinez.

Hala jokatu genuen, oraindik gauzatu ez diren Euskal Herriko Gazte Euskaltzaleen topaketak antolatzen: esan genien asteburu horretan aisia eta formazioa uztartu beharko genituela, orduan, beraiek ekarriko zituzten kontzertuak antolatzeari ekin zioten. Guk, ordea, dinamika batzuen bidez, gure herrietan eragiteko falta dituzten tresnak zerrendatzeko ariketa egiteko eskatu genien; horrela, beraien gustukoa izan zitekeen formazioaz egitaraua osatzea lortu dugu..

3.2.3- Politikoki lerratuta ez egotea

Euskaren politizazioaren inguruan asko idatzi da. Topaberriko “Berrikasi eta berrikusi” dokumentuan ere erreferentzia batzuk egiten zaizkio arazo honi.

Atzera begira jarri eta eraldatu beharreko hitz egitean, ideologia aipatzen da, eta izenburuari ondorengo hausnarketa gehitzen zaio:

*“Hizkuntz-ideologia sendo baten faltan, ideologia politikoeekin uztartu da euskalgintza, nagusiki abertzaleekin. Baina abertzaletasunak ez du elikatu aliantza euskaltzalea; aitzitik, lehia abertzalea gatazka eragile izan da euskalgintzan eta, aldi berean, uxatu egin ditu herritar ez abertzaleak.”
(Amonarriz eta beste, 2015:7)*

Aurrera begira aldatu beharko litzatekeen arlo bezala nabarmentzen da lehia hau, eta hiztun komunitate emantzipatu baten aldarria egiten da: “Euskararekiko interes komuna hedatuko bada lehenik indartu egin behar da, hiztun komunitatearen baitan komuna dena azpimarratu, barnerratu eta blindatu.” Eta dokumentuak gehitzen du, normalizazioaren inguruko eztabaidak guztiz zilegi direla, baina ezin daitezkeela hauek erabili konfrontazio politikoa elikatzeko. (Amonarriz eta beste, 2015: 8)

Bada, esan beharra dut aztertu ditudan taldeak bizikidetzaren eredu txalogarriak direla. Izan ere, asmo bakarraren inguruan; hau da, euskarari bultzada emateko gogoaren bueltan, jatorri, pentsaera eta sentsibilitate desberdineko pertsonak bildu gara.

Maite Agirrek ere potentzialtasun hau badela gogorarazten du, adibide bat eskainiz: “Arrasateko Gazte Euskaltzaleen Topaketan positiboa izan zen, beste gauza batzuetan, adibidez Euskal Herrian Euskaraz!en sekula parte hartu ez zuten pertsonen parte hartu zutela”. Gainera, parte hartzaile batzuen ahotik entzundakoak ere gogoan ditu: “Eurek esanda: beste leku batzuetan ezin dut (parte hartu)... ze politikoki lerratuta daude.”

Orokorrean, aztertutako taldeek zenbait pertsonen herrigintzan murgildu eta eragiten hasteko aukera ematen diela esan genezake.

3.2.4- Interneteko sareak ematen dituen aukerak

Talde guztiak presente daude Interneteko sare sozialen baten, gehienak Facebooken, eta guztiek daukate Whatsapp taldea. Azken honen bitartez, batzarrak adostu edo egin beharreko

lanak gogorarazten dituzte, baina bestelako erabilerarik ematen ez diotela argitzen dute, halere.

Dinamizatzaileok aukera handiak ikusten dizkiegu tresna hauei; hala ere, zein modutan landu beharko liratekeen asmatzea ez da erraza. Badugu susmoa, batxilergoa amaitu eta gero, taldeak bat eginda jarraitzeko modua baliabide hauetan oinarritu beharko dela.

Horren adibide garbia azaleratu zen Ixotuko taldekideekin egindako saioan. Izan ere, taldeko bi kide nagusienek, nahiz eta jakin hurrengo urtean kanpoan ikasiko dutela, etorkizunaz galdetuta, lanean jarraitzeko aukera izango dutela onartzen dute: “Ni ostiralero beharbada ez naiz etorriko, baina noizean behin bai (...) guri esaten badiguzue han (Bilbo) zerbait egiteko egingo dugu.” Komunikazio hori mantendu eta antolatuta jarraitzeko oinarri sendoak eskaini ditzakete sare sozialek.

4.- ARGIBIDEAK

Hurrengo atal honetan, aztertutako taldeen dinamizatorako argibideak edo praktika onak eskainiko dira. Hauek elkarriketatuek eskainitako zein guk praktikan jarritako adibideen bitartez janzten saiatuko naiz.

Zenbait kasutan, aurreko atalari egingo zaio erreferentzia. Izan ere, oztopo eta aukerak aurkeztea lehengo pausu modura ikusten dut, ostean, horiei nola aurre egin edo horiek nola baliatu azaltzeko.

Argi izan behar da ondoren datozen argibideak esperientzia multzo batean oinarritzen direla, eta, hortaz, talde guztiekin ez dutela berdin funtzionatuko: lekuan lekuko ezaugarriek, taldearen izaerak eta beste zenbait faktorek ere eragingo dute.

4.1.- TALDEAREN SORRERA: ESPERIENTZIA DESBERDINAK

Aztertu ditugun taldeek sorrera desberdina izan dute. Sorrera horiek gogoratze aldera, modu eskematikoan azalduko ditut hirurak, labur-labur:

- Ttak!: AEDk, elkartea gaztetu eta gazteengan eragin zuzenagoa lortzeko asmoz, lan talde autonomo bat sortzeko hautua egin zuen.
- Ixotu: Aretxabaletako Loramendi elkartearen gazte taldea sortu behar zela eta, Eskoriatzakoek ere taldea sortzeko asmoa erakutsi zuten. Esan daiteke, inizatiba propioz mugitu zirela.
- Txikupleittuak: Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez, Iñaki Eizmendik gidatuta ikastetxeetan euskararen inguruko hausnarketa saioak antolatu ziren ikastetxeetan, eta, ostean, lantaldea sortzeko gonbitea jaso zuten ikasleek.

Aukera bakoitza egokia dela onartu beharra dago, kontua baita taldea sortu eta ondo pasatuz lanerako prest dauden pertsonak elkartzea.

Hala ere, taldearen sorrerak hurrengo bilakaeran eragiten duenez, iruditzen zait talde batzuk sortzeko moduak egokiagoak direla beste batzuk baino. Esaterako, oztopoen atalean ikusi dugu Ixotukoek "sekta" direla entzun behar izan dutela ikasgela-kideen ahotik. Baina ekidin ahal daiteke besteen jarrera hori?

Ekiditeko lehengo pausua taldea zertarako sortu den argi azaltzea da, horrela inguruko gazte eta herritarrek ere garbi izango dute, lausotasunak errotik moztuta. Ixoturen kasuan, ordea, taldeaz lanean hasi ginen, baina uste dut nik (dinamizatzaileak) eta gazteek ere ez genuela gutzi argi biltze horren zergatia. Sekretismo apur batek gaizkiulertuak sor ditzake.

Txikupleittuen sorreran, ez da horrelako egoerarik suertatu; Ikastetxean sortu den heinean, klase-kide guztiei geratu zitzaien garbi talde hori sortzearen zergatiak zeintzuk ziren: ikasle guztiek burututako dinamikek oinarri sendoa ematen zioten proiektuari. Gainera, bide batez, etorkizunean taldekide izango diren horiei ere argi geratuko zaie zein testuingurutan lan egingo dugun eta zein den taldearen asmoa. Hau diot Ixotuko kide batek gogorarazi izan baitzidan eztabaida taldean: “hasieran sortu nahi genuen gazte taldea, euskararena ere bai, baina gazte taldea batez ere”. Berriz ere gaizkiulertuak ekiditea ona dela azpimarratuko dut.

Praktika on bezala ikusten ditudanez, ondoren, Txikupleittuak taldearen sorreran erabilitako dinamika erakutsiko ditut. Hauek Iñaki Eizmendik eskainiak dira, eta beste talde batzuen sorrerarako ere balio dezakete; hala ere, dinamika hauen egokitasuna lekuan lekukoa izango da: dinamika berdinek ez dute balioko Azpeitian eta Barakaldon (aurkeztuko dena Bergaran erabilia izan zen).

Bestalde, dinamikok ikastetxeetatik kanpo ere aplikagarriak dira; esaterako, Gaztelekuan antzeko saioak burutu daitezke.

DEIALDIA EGITEKO DINAMIKA ADIBIDEA

Helburua eta saio bakoitzaren eskema

Helburua da hizkuntzen eta euskararen inguruan hausnartzea, erabilerari begira dugun kezka aurkeztea eta eragile izan daitezen Ikasleen Euskara Batzordera gonbidatzea.

Lehenengo saioan:

- Hizkuntzekin, eta bereziki euskararekin, nolako harremana duten ikustea.
- Eleaniztasunaren aldeko mezua helaraztea.

Bigarren saioan:

- Identitatearen inguruan hausnartzea: euskara jakiteak eta erabiltzeak zein ezaugarri ematen dizkigun aztertzea.
- Erabilerarekin Ikastolan eta Euskara Elkartean dugun kezka azaltzea.
- Eragile izatera gonbidatzea: Ikasleen Euskara Batzordearen ideia azaltzea

Lehenengo saioa

1.- Gaia kokatzea

- Dinamizatzaileak bere burua aurkeztuko du.
- Egingo diren bi saioen berri emango zaie. Horrelako zerbait izan daiteke:

- Euskararen inguruan hausnartu nahi dugu zuekin eta ekimen berri batera gonbidatu nahi zaituztegu
- Bi saio egingo ditugu. Uste dut atseginak eta interesgarriak izango direla
- Herrian euskaldunak gero eta gehiago gara, baina erabilera ez da ezagutzaren parekoa
- Horren inguruan hausnartu nahi dugu zuekin, inoren jokabideak epaitu gabe eta modu baikorrean.
- Are gehiago, saioen amaieran ekimen berri batera gonbidatuko zaituztegu: Gazteen Euskara Batzordea.

2.- Eleaniztasunaren aldeko mezua

- Institutuen helburuetako bat hizkuntzak erakustea (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta euskararen erabilera indartzea dira. Baina hizkuntza-aniztasuna handia dagoen mundu batean bizi gara eta guren ingurunean ere hainbat hizkuntza elkarbizi dira. Ikasten ari zareten hiru hizkuntza horiek ikuspegi horretan kokatzea garrantzitsu da.
- Bikoteka jarri eta bikote bakoitzari bi postit emango dizkiogu.
- Lehengo galdera: zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? Postitetan idatzi eta arbelean itsatsiko dituzte. Ikasleak multzokatu egingo ditugu: 0-10 artekoak, 10-20 artekoak, 20-30...
- Ondoren, Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzen zerrenda bat egiten ahaleginduko gara. Zein hizkuntza datozkie burura? Portugesa hitz egiten da? Katalana? Gailegoa? Frantsesa? Errumaniera? Italiera? Ingelesa?...
- Beste postit batean, berriz, Munduan dauden hizkuntza kopurua ezabatu idatzi beharko dute, hau ere arbelean jarri, eta kopuruaren arabera multzokatu egingo ditugu.
- Ondorioa: 104 hizkuntza hitz egiten dira EHn (Unescok 2009an argitaratutako ikekerta). Munduan 6000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.
- Zenbat hizkuntzetako zerrenda egin dezakegu herrian? Bururatzen zaizkigu 10 edo 12 hizkuntza ziur hemen erabiltzen direnak?
- Hizkuntza horiek dakizkien pertsona bat ezagutuko bagenu zer esango genuke? Nola baloratuko genuke? Zer emango lioke (abantailak) hizkuntza horiek guztiak jakiteak?
- Horri buruz hitz egingo dugu eta mezua bat emango diegu: hizkuntza asko jakitea aberasgarri da eta aukera asko ematen dizkigu. Gutako bakoitza hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari da eta hori ona da.

3.- Hizkuntzekin, eta bereziki euskararekin, nolako harremana dugu?

- Hizkuntza bat baino gehiago dakizkigu eta hori bera beti ona izango da.
- Baina nolako harremana dugu hizkuntza horiekin? Adibidez: euskaraz dakigu eta euskaldun sentitzen gara, baina egunerokotasunean nolako harremana dugu?
- Bost egoera jarriko dizkiegu:
 - o Familia: etxea, osaba-izebak, lehengusuak...
 - o Festa giroa: jaiak, diskoteka, jaialdiak...
 - o Sare sozialak eta komunikabideak
 - o Eskolaz kanpoko jarduerak: kirola, musika...
- Galderak egingo dizkiegu puntu bakoitzaren inguruan:
 - o Zenbatek erabiltzen duzue euskara etxean? Eta osaba-izebekin? Eta lehengusuekin?
 - o Zein dira zen gustuko festak edo festarako giroak? Jaiak, diskotekak edo dena delakoa.
 - o Zein zare sozial erabiltzen dituzue? Telebista ikusten duzuenean zer ikusten duzue?
 - o Zer jarduera egiten dituzuen institututik kanpo? Musika, kirola... zein musika talde gustatzen zaizkizue?
- Bakoitza aipatzean dugunean puntuak emango dizkiogu bakoitzari.
 - o Ikasle bakoitzak galdera bakoitzeko bost gometza izango ditu
 - o Gelako horma batean bi kartulina handi jarriko ditugu: bata euskara adierazten du eta besteak gaztelania.
 - o Galdera egiten dugunean, ikasleak altxa eta kartulinetan gometzak jarri behar dituzte: ikasle bakoitzak erabakiko du zenbat gometza jarri bakoitzean. Gune edo egoera bat guztia gaztelaniaz bada, bost gometzak kartulina horretan, biak agertzen badira bati bat eta edo bi eta besteari besteak...
 - o Bost galderak egindakoan kartulina bakoitzean zenbat gometza dauden ikusi ahal izango dugu.

- Lehengo ondorioa: euskaldunak gara, eta gure burua euskalduntzat hartzen dugu. Baina ikusten dugu arlo batzuetan hutsuneak ere nabari direla.
- Azken mezua: Eleanitzak gara, eta hori ona da. Zenbat eta eleanitzagoak, hobe. Baina euskaldunak gara, eta horrek ezaugarri batzuk ematen dizkigu. Harro egon gaitzke horretaz. Baina egunerokotasunean euskarak askotan ez du leku handiegirik. Eta hori ere kontuan izan behar dugu.

Bigarren saioa

1.- Erabileraren gaia kokatzea

- Ezagutzen al dituzte herriko eta eskualdeko ezagutza eta erabilera datuak?
- Biztanleen zenbatek dakite euskaraz? Galdera botako diegu. Binaka edo taldetxotan hitz egingo dute, eta emaitzak arbelean jarriko ditugu.
- Eta kaleko erabilera zenbatekoa da? (kale neurketak nola egiten diren azalduko diegu). Zenbatekoa da datua? Berriz hitz egingo dute eta arbelean jarriko ditugu datuak.
- Eta eskolan? Patioan zenbatekoa da erabilera? Horiek ere apuntatuko ditugu.
- Ez dizkiegu emaitzak emango

2.- Ondoren, identitateari buruz hitz egiten hasiko gara:

- Taldeka banatuko ditugu: 2-3 kideko taldeak
- Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat? Izeneko fitxa banatuko diegu eta talde bakoitzari herrialde bate emango diogu.

ZER DA ONDOKO GAUZA BAKOITZA ZURE KULTURARENTZAT?
--

Zuek.....herrialdekoak zarete.

(Aukerak: Alemania, Errusia, Hego Afrika, Maroko, Argentina, Kanda...)

Saiatu zaitetzte leku hartan kokatzen eta hangoak bazinete bezala erantzuten. Zalantzak izan ditzakezue, baina daukazuen erreferentzien arabera erantzun.

Parte hartzen al duzue olinpiadetan?	BAI	EZ
Zuen kirolen artean futbola ere ba al dago?		
Zuen herrialdeko komunikabideek egin al zioten jarraipenik munduko futbol txapelketari?		
Madonna abeslaria ezagutzen al duzue?		
Zuen herrialdeko telebista kateetan botatzen al dituzte Madonnaren bideoklipak?		
Mozart musikaria nor den ba al dakizue?		
Musika klasiko kontzerturik izaten al da zuen herrialdean?		
Batukada edo antzeko perkusio talderik ba al da zuen herrialdean?		
<i>Operación Triunfo</i> zer den ba al dakizue?		
Zuen herrialdean ba al da <i>Operación Triunfo</i> moduko programarik?		
You tubeko bideoak ikusten al dituzue?		
Facebook erabiltzen al duzue?		
Ferrari kotxe marka ezagutzen al duzue?		

- Fitxa beteko dute eta ondoren guztion artean aipatuko ditugu emaitzak.
- Ez al dira elementu komun asko? Berdin al zaigu hemengoa izatea, Japoniarrak izatea edo Hego Afrikarrak izatea? Zein izan daitezke benetako elementu bereizgarriak? Elementu horiek zenbateraino pisua dute nire bizitzan? Euskara bereizgarri nabarmena izan daiteke? Baina euskarak ba al du benetako pisurik nire bizitzan/identitatean?
- Galdera horiez hausnartuko dugu: ez dago erantzun zuzenik, bakoitzak horiez iritzia eman dezake eta dinamiken gidaria ondorio nagusi batzuk laburtzen ahalegindu daiteke.
- Guk ondorio honetara heldu nahi dugu: elementu bereizgarri nagusia hizkuntza da.

2.- Ondoren, herriko, eskualdeko eta ikastetxeko elementu ezagutza eta erabilera datuak emango dizkiegu.

3.- Euskaldun sentitzen bagara eta elementu bereizgarri nagusia hizkuntza bera bada, zergatik datu horiek? Zergatik ezagutza eta erabileraren datu artean horrelako aldea? Iritzia eskatuko diegu, baina ahaleginduko gara inoren jokabidea ez aipatzen.

4.- Taldeka jartzeko eskatuko diegu eta honetaz hitz egiteko: Eta desoreka hori txikiagoa izatea nahiko bagenu? Non daude zailtasunak? Et zer egin genezake? Zerbait bururatzen zaizue?

Ikasleen Batzordera gonbidatzea

- Guk ere hor eragitea nahi dugu.
- Horregatik, euskararen erabilerarekin interesa edo ardura baduzuenekin batzorde bat osatu nahi dugu. Borondatezkoa izango da.
- Taldearen izaeraren ezaugarri desberdinak aurkeztuko dizkiegu: euskararen erabilera indartzeko, hainbat jarduera antolatuko ditugu; Euskara Elkarteko kideen laguntza izango duzue, baina zuen taldea izango da; zuekin adostuko dugu antolaketa...
- Izen emate orria pasako diegu.

4.2.- TALDEARI JARRAIPENA EMAN

Taldearen jarraipena aitzakia moduan hartuta, atal honetan gai desberdin asko jorratuko dira, zenbait faktorek eragiten baitute horretan. Horregatik, puntu desberdinetan banatuko dut atala, ulergarritasuna irabazte aldera.

- **Taldera jende berria erakarri:** Ikusitakoekin esan daiteke taldearen jarraipena bermatzeko oinarrietako bat da beste zailtasun bati aurre egitea: lagunarte desberdinak batzea. Eta, gero, sortutako talde berri hori lagunarte bilakatzea. Ezagutu ditugun hiru taldeetan egin dira jende berria erakartzeko ahaleginak: AEDK eta Ixotuk gaztetxokoaren/gazteleku bitartez eta Txikupleittuak Ikastolaren bidez.

Erakartze saio hauetan aisialdia, hau da, ondo pasatzea (zuzeneko musika saioa eta merienda antzeko bat, adibidez) eta hartzaileak mugituko dituen dinamikaren bat (aurreko atalean erabilitakoek balio dute) uztartzea dela egokiena uste dut.

Bestalde, aurrekoei gehitu diezaiekegu beste estrategia bat ere: ekimen jakin baterako laguntza eskatzea; esaterako, taldeko egitasmo baten antolaketan parte hartzea.

Noski, esan beharrik ez dago kide berriekin harremanean taldekideek parte hartzea oso garrantzitsua dela, gaztetxoago horientzat erreferente baitira. Iñaki Eizmendik dioen moduan "Erreferenteak badira joaten direnak, funtzionatzen du".

- **Norbanakoak zaindu:** Jende berria taldera erakartzeko zailtasunak erraz gainditu daitezkeelakoan nago. Talde barneko kohesioa mantendu eta lagunartea sortzea, ordea, ez da horren erraza.

Hau lortzeko lehengo pausoa da taldea osatzen duten kideei bi ideia garbi uztea: bata, gure asmoek irauteko gogoia badugu, taldean jende berria sartzen joan beharko garela, eta, hortaz, ez direla beraiek bakarrik egongo etorkizunean; bestea, taldekide nagusiei azaldu behar zaie,

haur txikiagoen begiradaren jopuntu direla, hau da, eredu (Amondarain, 1999) Eta, erreferentzialtasun hori baliatu behar dugula inguruan eragiteko.

Helburua, taldean, giro ona eta kohesioa sortzea izango da. Dinamizatzailea kohesiorako elementua bada, taldeak jarraituko du, baina taldekideen artean konplizitatea sortuz gero, emaitzetan ere igarriko da. Eta horren inguruan bada kontutan hartzeko gauza bat: taldearen gehiengoa koadrila batek edo bik osatzen dutela ikusi dugu, ba koadrila hauetakoak ez diren kideak bereziki zaindu behar dira, ondo senti daitezten. Izan ere, koadrila barruko giro ona ia bermatuta dago, kide berrien artekoa, aldiz, ez.

-Taldekako lider eta erreferenteak identifikatzea: Koadriletan bezala gure taldeetan ere, kide bakoitzak rol bat hartuko du, ziurrenik; gainera, taldeok –ia osotasunean– koadrila bakarrez osatuta egotean, taldea sortu aurretik egongo dira rolak finkaturik. Rol horien artean ez da faltako liderra.

Hau horrela dela baieztatzeko, AEDk “laborategi” (aurrez aipatua) saio horietan ateratako beste ondorio bat aurkeztuko dut:

“LIDERRAK: taldetik tira egiten zuten norbanako zehatz batzuk zeuden, liderrak”

Lider horiek, askotan, euskararekiko duten sentibilizazio maila beste taldekideena baino altuagoa dela esango nuke. Hau jakinik, liderra identifikatzea baliagarria izan daiteke dinamizatzailearentzat, batez ere, taldeko motibazio eta konpromiso mailak altu mantentzeko.

-Ondo pasatzea: Orain arte ere aipatu da faktore hau, baina azpimarratu nahiko nuke. Ongi pasatzen ez den tokian, nekez irtengo da ganorazko zerbait, eta gazteek ere badakite. Txikupleittuetako saioan, Estepan Plazaolak zuzen galdetu zien “zein da horrelako talde batek irauteko oinarria?” eta beste arrazoi batzuen artean, hau azpimarratu zen: “gustura etortzea, azkenean gustura ez baldin bazatoz...”

-Eragiten jarraitzeko beste bide batzuk bilatzea: Ikasketak tarteko, batxilergo ostean taldeak indarra galdu dezakeela aipatu dugu zenbaitetan. Honen aurrean, Iñaki Eizmendirekin izandako elkarrizketan, jarraipenaren inguruko hipotesi bat formulatu zen: “herri maila gainditu beharra dago, hainbat gauza Internet bidez egin daitezkeenean”. Planteatzen zen, gustuen arabera, gai desberdinen arabera eragiten jarraitu daitekeela, sare bitartez eta bi asteen behin geratu gabe. Adibidez, informatika gustuko duen taldetxo bat sortu daiteke, eta alor horretan euskararen erabileraren aldeko pausoak eman ditzakete Internet bidez.

4.3.- PARTE HARTZEA BULTZATU

Adin honetako gazteek dituzten bi ezaugarri hauexek dira: bata, protagonista izatea gustatzen zaie, eta, bestea, gogoko dute nonbaiteko eta zerbaiteko partaide izatea. (Funes, 1997)

Hortaz, ezaugarri hauetaz baliaturik, bi gauza lortu behar ditugu: taldekide guztiak protagonista sentiaraztea eta zerbaiten parte direla sentiaraztea. Hau lortzeko, zenbait detaile txiki hartu behar dira kontutan:

-Denen ahotsa entzuten dela bermatu: Gazte bakoitza desberdina den neurrian, baliteke batek bilera osoa isilik igarotzea eta beste bat, ordea, isildu gabe egotea. Horrela funtzionatuz gero, bileraren amaieran, kide gutxi batzuen ideiak bakarrik hartzen dira kontuan.

Hau ekiditeko, lehenengo ideiak talde txikian bota daitezke (bina edo hirunaka) eta gero partekatuko dira ideiak beste kideekin. Horrela, norbait denen aurrean hitz egitera ausartzen ez baldin bada, ez du hitz egingo, baina bere ideiak kontuan hartuko dira, aurrez bota baititu.

-Bileretan, ordezkari gisa, beraiek parte hartzea: Zenbait ekimen beste eragile batzuekin elkarlanean antolatuko dira, hala nola, udaletxearekin, ikastolarekin, euskara elkartarekin... Egin beharrekoak kudeatzeko batzar desberdinak egingo dira, eta hauetara dinamizatzailerak joan beharrean –edo bera bakarrik– taldeko kideak ere joatea garrantzitsua da. Oso desberdina izango da ekimen edo egitasmo horretan jarriko duten inplikazio maila.

-Lanak banatu eta arduradunak izendatzea: Lanak banatzen ez baldin badira, pasa daiteke lan gehienak dinamizatzaileraren kargu geratzea, eta, gazteen kargu geratuz gero, motibazio altua dutenek (aurrez aipatutako liderrak ere bai) egingo dituzte eginbeharrak.

Hau gertatu ez dadin, lan-talde desberdinak sor ditzakegu, eta guztiak sentituko dira garrantzitsu, bere lanik gabe egitasmoa ez baita aurrera irtengo. Gainera, oso motibatuta ikusten ez ditugun kideak beraien lantaldeetako arduradun izatea proposatu geniezaieke, eta horrela, beraiengandik inplikazio handiagoa lortzen saiatuko gara.

4.4.- ERAKARGARRI NOLA IZAN

Erakargarritasunaren inguruan ere zenbait auzi desberdin zabaltzen direnez, atal hau ere puntu desberdinetan zatiturik azalduko dut:

-Gustuko ekimenak antolatu eta errekonozimendua jaso: Gustuz aritzearen oinarria hau dela esango nuke: gustuko ekimenak antolatzea eta ingurukoengandik errekonozimendua jasotzea.

Bi eztabaida saioetan, beraiek antolatutako ekimenak baloratu zituzten, eta gustukoaren zein gutxien gustatu zitzaizkienaren inguruan hausnartu zen. Talde bakoitzeko erantzunetan ez zen barietate askorik egon: Txikupleittuek, ahoz batez, ekimen gustukoena “*Porrotxen bisita*” izan zela esan zuten eta gutxien gustatu zitzaizkienak “*bi bideoak*”; Ixotukoek gustukoaren artean jarri zituzten “*Galartzako asteburua*”, “*Postaka*” eta “*2015eko Euskararen Eguna*”, gutxien gustatu zitzaizkien artean ez zegoen horrenbesteko adostasunik, baina agi geratu zen “*bideoa*” egitea ez zitzaizela gustatu.

Beraien hitzetan, gustukoena arrazoitzeko horrelakoak azaleratu ziren: “jende pilo zegoen eta nortzuk antolatu zuten? (guk)”, “behingoz herria mugitu dugulako”, “jendea etorri zen; parte hartu zuen”, “ondo pasatu nuen”...

Ekimen gustukoenek beraien artean duten elementu komuna arrakasta lortu eta ingurukoengandik errekonozimendua jasotzea direla uste dut. Gustatu ez zitzaizkienetan, aldiz, ingurukoek aldetik ez zuten harrera on hori izan; esaterako, zailtasunak izan zituzten bi taldeek bideoak grabatzerakoan, ingurukoek ez baitzuen lagundu, guk nahi adina.

Maite Agirrek ere gogorarazten du, errekonozimenduarena klabeetako bat dela “esan behar zaie: ‘kriston lana egiten ari zarete!’ Jendearen lana baloratu beharra dago (...) inportante direla sentiarazi behar diegu”

-Ez dira eskulan merke: Askotan gazteak eskulan merke, alegia, doako eskulan bezala erabili dira. Agirrek dioen moduan “hori gazteek egingo dute!” askotan erabili da, eta Estepan Plazaolak dinamika horrek sortzen duen arriskuaz ohartarazten du “askotan erre egiten ditugu”.

Horregatik, kontu izan behar da eskaintzen zaizkien lanekin; gazteak uxatzen amaitu baitezakegu. Horren aurrean, ordaindutako lanak eskaintzea ere garrantzitsua da; hau da, esaterako, herrian kale neurketak egin behar baldin badira, taldeari lan hori eskaini eta dirua beraiendako izateak harrera ona du gazteengan; erakargarriak dira lan horiek.

-Transgresioa: Nerabeek beraien nortasuna baieztatzeko, ingurukoak probokatu behar ditu (Funes: 1997). Hortaz, erakargarri izateko, adin hauetan, transgresioa ere izan behar du proiektuak.

Eusberdin taldeko kideek esan omen zioten Maite Agirreri: “ekintza ganberroagoak egin behar ditugu”. Uste dut kontutan hartzekoa dela, zirikatzaileak eta guztiz “zuzenak” ez diren ekintzek ere beraien pizgarria baitute.

Bestalde, honekin lotuta ikusten dut ikastola edo eskoletan euskal nortasunaren inguruan egiten den lanketa ere. Izan ere, orokorrean, irakasleek eskaintzen dutena ez da beso zabalik hartzen adin hauetan, eta, horregatik, lanketa horrek erakargarria izan behar du; ezin daitezke saio bakoitzetik ikasleak purrustadaka irten, eta badirudi hau gertatu dela zenbaitetan: Izan Bazarako lanketaz, Ixotukoek hauek bota zituzten “betiko rollo iguala, txapa iguala” eta “ia gaude aspertuta”.

Hala ere, esan beharra dago azken aldian dinamika aldatu eta harrera askoz hobea dutela saioek: gai desberdinak jorratzen dira (Donostiko piratak, Kitzikan..), kanpora egiten diren bisitak desberdinak dira (aurten, Errekaleorrera)... Adibide erakargarriek jakin-mina eta ekintzailetasuna piztu dezakete, betiko adibide tristeez dirudienek ez.

-Ardi beltzen auzia: Ardi beltz ez sentitzeko, beste ardi beltz gehiagoren beharra dago; hau da, ardi beltzez osatutako artaldean ezin sentitu daiteke bat ardi beltz.

Maite Agirrek dio “hau oso inportantea da, ikustea badela ardi beltz gehiago”, eta Iñaki Eizmendik ere izaera bereko taldeen topaketa bati buruz hitz egitean “horrek kriston indarra dauka” dio. Alegia, horrelako taldeak elkar ezagutzea dinamika ona izan daiteke “desberdin” izate horren sentsazioa kendu eta ondo pasatzeko. Bide batez, erakargarritasuna islatuko du ingurukoengan.

Gainera, elkarlan horretara prest daude: Ixotuk eta Ttak!ek elkarlanean daramate azken urte erdia, eta Txikupleittuei beste taldeekin harremanik izango luketen galdetuta “guay” egongo zela bota zuten . Gauza ederrak sortzeko aukera ona dago.

Amaitzeko, behin Zesar Martinezi (EHUko irakasle) entzundako aipu bat ekarriko dut gogora “bere buruaz seguru ez dagoenarekin, inork ez du ibili nahi”. Hortaz, egiten denarekin harro egon beharra dago, eta besteei ere sentrazio bera helaraziko diegu.

4.5.- EKIMENEN PROZESU OSOA ETA ADIBIDE BATZUK

Hurrengo pausok taldearen jarduna planifikatzeko bokazioz idatzi ditut. Lau pauso simple dira (*markoa eskaini, ideiak bota, ekimena aurrera eramane eta berau ebaluatu*), eta oinarri bat eskaintzen digute:

Gainera pausok erabili daitezke ekimen bakarra antolatzeko, hilabeteko ekimenak antolatzeko edo urte osokoak aurrera eramateko.

-1. Markoa eskaini: Ezer antolatzen hasi aurretik non eragin nahi dugun izan behar dugu garbi: antolatzen dugunak zentzua izan behar du. Ideia hau gazteei helarazi behar diegu, beraien sormena bideratzeko helburu batzuetara. Honek ez du esan nahi antolatzen den gauza oro egon behar dela euskararen erabilera areagotzera bideraturik, egiten ditugun gauza asko barnera begira izango baitira eta bestelako helburuak izango baitituzte: ondo pasatzea, taldea sendotzea...

Baina taldearen helburuak zeintzuk diren kontuan hartuta, marko bat eskainiko diegu, zeinetan erabileran eragiten duten faktoreak azalduko diren. Hortik aurrera, zabalik egongo gara edozein proposamen entzuteko. Eizmendik dioen moduan, “beraiek erabaki behar dute ze antolatu nahi duten, baina oinarri batzuen arabera”.


Soziolinguistika Klusterrak ateratako Erabileraren GPSan (Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida) gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak aurkezten dira (ikus hurrengo irudia).

Gida honek dinamizatzaileari pista asko eskaintzen dizkio, baina gazteei ezin zaizkie guzti hauek aurkeztu. Horregatik Iñaki Eizmendik faktoreok bost puntutara ekarri eta sinplifikatzea aholkatzen du:

- Hizkuntza-gaitasuna: Hizkera informala
- Jarrerak: Euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitea
- Erreferenteak eta kontsumo eskaintza
- Hizkuntza-ohiturak eta hizkuntza-arauak
- Euskara erakargarria izatea: bizipenak eta euskara balio indartsuekin lotzea

Hauetako faktore edo alor batean eragitea izango da gure helburua.

GAZTEEN HIZKUNTZA ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK



Iturria: Erabileraren GPSa (neuk moldatua)

-2. Ideiak bota: Markoa finkaturik eta non eragin nahi dugun erabakita, ideiak botatzeari ekingo genioke. Ideia-zaparrada egitea ideia ona izan daiteke, baita antzeko beste estrategiak erabiltzea ere.

Hala ere, gogoan hartuko dira, gorago esandakoak; esaterako, kontuan hartu behar da kide guztiek ez dutela gogoko izango talde handian hitz egitea, eta hauei bere ahotsa entzun dadin gauzak erraztuko dizkiegu.

- **3. Lanak banatu:** Gai hau ere jorratu dugu parte hartzeari buruzko atalean. Esan bezala, lanak banatzeak funtziona dezake; guri, behintzat, funtzionatu digu.

Lan kargak bakar batzuk hartu beharrean, kide guztien artean banatzen saiatuko gara. Horrela arrakasta izan edo porrot egin guztiok izango gara emaitzaren parte.

- **4. Ekimena ebaluatu:** Ekimena, hilabetea edo urtea amaitzean ebaluazio bat egitea praktika ona dela deritzot.

Nahi ditugun ekimen, denbora tarte edo alorrak jar ditzakegu ebaluatzen; bestetik, maila desberdinetan ebaluatu ditzakegu. Azpiko adibidean, Ixotuk 2016ko lehenengo lauhilekoan eginiko balorazioa ageri da.

Taula sortu eta horman itsatsi genuen; gero, kide bakoitza irten zen ekimen edo denbora tarte bakoitzeko bere burua, taldea eta herria nola ikusi zituen baloratzera. Balorazioa gometzen bitartez egin genuen: berdea=ondo / horia=erdipurdi / gorria = gaizki.

Gogoeta interesgarriak irteten dira horrelako balorazioen bueltan.

2016: LEHENENGO LAUHILEKOARE BALORAZIOA (IXOTU)

	NI	TALDEA	HERRIA
1. LAUHLABETEA	●●●●● ●●●●●	●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●
BAILARAKO GAZTEEN TOPAKETA	●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●● Herria ez zen baloratu, barne ekintza zelako
EUSKARAREN EGUNEKO ASTEA	●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●
EUSKARAREN EGUNEKO BIDEOA -Idea -Garapena -Emaitza	●●●●●●● ●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●
KRISEILUAK -Idea -Zabalpena -Emaitza	●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●
PEGATINAK -Idea -Erabilera	●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●	●●●●●●●●● ●●●●●

Iturria: Neuk

sortua

-Ekimen posibleen adibideak

Orain, Iñaki Eizmendik eskainitako ekimen posible batzuk deskribatuko dira. Hauek planteatzerakoan, kontuan hartu beharko dira taldearen zein ingurunearen ezaugarriak: aurrez esan bezala ez da berdina izango Barakaldon edo Azpeitian eragitea. Hala ere, esango nuke hurrengo adibideak, leku eta egoera askotan direla aplikagarri:

PIROPO, BIRAO ETA ANIMOEN LEHIAKETA

- 1.- Hiru lehiaketa antolatuko ditugu aldi berean: piropoak, biraoak eta animoak-
- 2.- Bakoitzeko zerrenda bat prestatuko dugu. Zerrenda hori kartulina edo karteletan jarriko dugu: argazkiekin, marrazkiekin... Ikastetxeko paretak horiekin josiko ditugu.
- 3.- Lehiaketa aurkeztuko dugu: jendeari eskatuko diogu piropoak, biraoak edota animoak idazteko eta aurkezteko.
- 4.- Hoberenak aukeratuko ditugu eta horiei sari bat emango diegu. Sariak ez du beste munduko zerbait izan beharrik. Opari hau ere balia dezakegu euskararen erabilera eragiteko, adibidez, euskarazko musika izan daiteke saria.
- 5.- Aukeratu diren horiekin berriz kartelak eta abar prestatuko ditugu.
- 6.- Saio praktiko bat egingo dugu: egunen batean atseden tarte batean bilduko gara, eta jolas bidez landutakoa praktikan jarriko dugu. Ondo ateratzen bada, bi edo hiru saio antolatu daitezke.
- 7.- Nahi izanez gero:
 - Lehen Hezkuntzakoekin saio batzuk egin ditzakegu animoak lantzeko.
 - Soinketa irakasleei eta kiroltako entrenatzaileei animoak pasako dizkiegu beraiek erabiltzeko. Agian birao batzuk ere...
 - Piropoekin pegatinak edo txapak prestatuko ditugu nahi duenak har ditzan
- 8.-Lehengo saiakera ondo atera bada, lehiaketa gehiago antolatuko ditugu!

ERRONKA: EZETZ ASTEBETEAN EUSKARA MANTENDU!

- 1.-DBHko eta Batxilergoko gelatik pasako gara eta ideia bat aurkeztuko da: norbaitek erdaraz egiten duenean oso erraz jotzen dugu beste hainbatek gaztelaniara, baina ez dauka horrela izan beharrik. Zergatik ez mantendu euskara? Zaila izan daiteke?
- 2.-Erronka:
 - Borondatezkoa izango da: nahi duenak parte har dezake
 - Izena ematen duen bakoitzak laguntzaile bat har dezake: gaztelaniara jotzen badu euskarara itzultzeko eskatuko dion norbait.
 - Erronka egingo den astean, ikastolan kartelak jarriko dira erronka gogoraraziz, animoak ematen...
 - Aste horren ondoren, parte hartu dutenek galdetegi labur bat erantzungo dute: lortu dute? Erraza izan da? Gustura aritu dira? Non sentitu dira deseroso edo izan dituzte

zailtasunak?

3.- Saria: parte hartu dutenei sari bat emango zaie. Sari desberdinak izan daitezke.

4.-Ondorioak: berriz ere gelatik pasako gara ondorioen berri ematen, jendea zoriontzen, eta agian, proposamen berriren bat egiten.

GAZTEAK HAUREN ERREFERENTE

1.- Maiatzean LH6ko taldeetara joango gara.

2.-Saio horietan bi gauza egingo ditugu:

- DBHri buruz hitz egin: zer aurkituko duten, zer alde dagoen LHtik, irakasleak nolakoak diren...
- Euskararen erabilerari buruz hitz egin: jolas bat egingo dugu beraiekin (erabileraren inguruan hitz egiteko) eta DBHn euskara asko erabiltzen jarraitzera gonbidatuko ditugu.

3.-Irailean berriz ere joango gara talde horietara. Dagoeneko DBHn daude eta ongi etorria egingo diegu. Saio horietan berriz ere euskara asko erabiltzera animatuko ditugu.

MUSIKA TALDE HOBERENA AUKERATZEN

1.- Euskarazko abesti gustukoena aukeratu nahi dugu.

2.- Astero ikastetxeko pasiloetan kartelak jarriko ditugu:

- Astero hiru abestiren loturak agertuko dira (interneten abestia entzun ahal izateko)

3.- Ikastolako toki batean botoa emateko kutxa jarriko dugu.

- Parte hartu nahi dutenek abesti bakoitzari nota jarri behar diote eta iritzia eman behar dute: adjektibo bat, esaldi bat...
- 6 astez egingo dugu lehiaketa

4.- Bozketak amaitzean

- Sailkapena erakutsiko dugu
- Hiru abesti hoberenen letrak karteletan jarri ditugu. Zein nota atera dute eta zein adjektibo jarri zaizkien ere bai.
- Aukera egongo balitz, musika talde horretako kideak ekarriko ditugu ikastetxera edo gaztelekura eta beraiekin solasaldi bat egingo dugu.

5.- Hau bera hainbatetan errepikatu daiteke: ezagunak egiten zaizkigun musika taldeen abestiekin, abesti tradizionalarekin, bitxikeriekin (musika estilo arraroetako abestiak)...

ASTE BURU PASA

- 1.- Asteburu pasa bat antolatuko dugu
- 2.- Parte hartzeko baldintza izango da joaten denak euskaraz egiteko konpromisoa hartzen duela
- 3.- Ekintza erakargarriak antolatuko ditugu eta pertsonaia ezagun baten bisita ere antolatu dezakegu. Musikari bat eraman eta abesti saio bat egin berarekin, kirolari bat eta berarekin aritu jolasean...
- 4.- Asteburu pasan parte hartze duten guztiei agiri bat emango diegu: euskara asko erabiltzeagatik eta batez ere euskaraz disfrutatzeagatik zorionduz.

GAZTE HIZKERA: ERDARAZKO ESAMOLDEAK EUSKARATU

1.- Gazteei (herrikoak, ikastetxeak...) eskatu erabiltzen dituzten erdarazko esamoldeak zerrendatzeko, baita hauen esanahia ere.

2.- Hauetako batzuk aukeratu eta euskaratu, adibidez:

ERDARAZ	EUSKARAZ
A saco	
En plan...	
Hazte caso...	
Ni de coña/ ni de palo	
Estás tú que sí	
De puto culo	

3.- Ondoren, euskaratu eta gero, erabiltzeari ekin. Horretarako, jolas modura hasi gaitzke.

4.- Funtzionatzen duten esamoldeak identifikatutakoan, entrenatzaileekin, aisialdiko begiraleekin... konpartitu eta erabiltzera animatu.

5.- Sare sozialak ere erabili daitezke hauen zabalkunderako.

Ikus daitekeen eran, adibideok ikastetxean antolatzeko pentsatuta daude; hala ere, aldaketa txiki batzuen bitartez herri mailan antolatuak izan daitezke. Esaterako, "piropo, birao eta animoen lehiaketa" herri mailan planteatu daiteke, hauek idazteko kartelak taberna desberdinetan banatuta.

4.6- DINAMIZATZAILEA

Sakontze egitasmoaren hasieran aipatu dudan eran, nire dinamizatzaile lana burutzerako orduan, zenbait mugarekin egin dut topo. Hala ere, batutako gogoetatik dinamizatzaileak izan beharko lukeen ezaugarriren bat edo beste aipatuko dut.

Horretan hasi baino lehen, bi eztabaida taldetan dinamizatzailearen paperaz gazteek botako ideia bat nabarmendu beharrean nago. Bi taldeetan, etorkizun hipotetiko bat marraztu eta dinamizatzaile gabe funtzionatzeko gai izango ote ziren galdetu zitzairen, eta esan beharra dago dinamizatzaile gabeko etorkizunik ez dutela ikusten.

Txikupleittuetako kide batek bota zuen eran, “ez balego Irati (dinamizatzailea) beste norbait jarriko litzateke”, eta gaineratu zuten dinamizatzailearen faltan taldeko kideetako batek hartu beharko lukeela bere papera edo eginbeharrak gogorarazteko lana: “batzarra noiz? *Ez dakit zer noiz?*”. Ixotuko talde batek dinamizatzaile gabeko etorkizun horri jarrita dio: “Nik uste dut hasieran baietz (taldeak jarraituko zuela), baina gero (taldea) utzi egingo genuela”.

Kontua da dinamizatzaileak ere ez direla edo garela betirako egongo. Iñaki Eizmendirekin izandako elkarrizketan ere azaleratu zen kezketako bat da hau: taldea eta erreferenteak erreproduzitzen joan behar garen moduan, dinamizatzaile posibleak ere bilatuz joan beharko ginateke. Eta aukera posible bat aipatzen du Agirrek: egungo taldekideek, taldean jarraitu eta honen gidaritza hartuta, gazteagoak dinamizatzea. Gainera, Arrasateko kasuan, hogeitaz urteren bueltan dauden Ttakleko taldekide ohiak badira, eta profil

Ezaugarri dagokionez, printzipioz ez da aparteko ezaugarririk behar –aipatu beharrik ez dago euskararekiko sentsibilizazioa–, elkarrizketatuek aipatutako moduan “beraien erreferente izan behar du” pertsona horrek, eta, hortaz, garrantzitsua da “beraien ingurune berekoa” izatea: adinari dagokionez zein eskualde edo herriari dagokionez. Honek ez gaitu sortuko diren egoera “berezi” guztietatik salbatuko (adibidez, hamar urte gazteagoekin Kilometrotara joateak badu surrealstatik zer bait), baina lagundu dezake. Egoera hauetan, lagungarria da dinamizatzaile bakarria ez izatea (ikusitako taldeek, bi dituzte edo izan dituzte), horrelako momentuak kudeatzeko adinez gertuago dagoen pertsona batek lagun baitezake eta bien artean lagunduko baitira.

Hortik aurrera, esan bezala, gauzak ikasi eta jardunerako tresnak hartzea litzateke kontua, eta Agirrek ere hala ikusten du: “baliabideak behar ditugu: (...) badakigu nola aktibatu behar diren? Ez da bakarrik ekintzak egitea (...) ez da bakarrik aisialdia”. Taldea kudeatzeko, lanean hasi aurretik, baliabide horiek jasotzea aberasgarria litzateke; esana gelditzen da ikastaro bat antolatu nahi duenarentzat.

5.- ONDORIOAK

Hasieratik, lanaren nondik norakoak argi nituen. Banekien zein gai jorratu nahi nuen, eta horretarako erabiliko nuen metodologia ere, tutorearen laguntzaz, azkar erabaki genuen. Izan ere, azken bi urteetan Ixotun egin dudan jardunean esperientzia desberdinak bizi izan ditut, hauetako batzuk arrakastatsuak eta beste batzuk frustraziotik gertuago daudenak. Bizipenok orrialde batzuetan biltzeko asmo nuen, eta, hortaz, neurri batean ezinegon pertsonal bati erantzuna ematera bideraturik egon da lana.

Bereizgarri hauekin, beharbada, ez da lan ortodoxoa irten emaitzatzat. Esaterako, helburuak, soilik, –hipotesi gabe– formulatu ditut, eta esango nuke funtzionatu duela. Izan ere, helburu orokorra *“Euskaingintzan diharduten hiru gazte talderen esperientzia aztertzea eta izaera bereko taldeak dinamizatzeko argibideak ezagutzera ematea”* zela kontuan hartuz, bete dudalakoan nago; ikus dezagun.

Hiru esperientzia desberdinen errelatua osatu da, eta, desberdintasunen gainetik, hiru taldeen oinarriak –berrikuntza dira eta arrakastarako egokiak– berdina direla ondorioztatu da:

- Asmoa: Euskararen erabilera areagotu nahi dute beraien inguruan.
- Funtzionamendua: Taldea osatzen da interesa duten gazteekin, eta oinarri batzuen gainean lan autonomoa burutzen dute.
- Dinamizatzailea: Lan autonomo hori gidatuko duen dinamizatzailea izango dute, beraientzat erreferente izango dena.
- Erreferenteak sortzeko helburua: Taldeak beraien inguruko gazteen erreferente izateko jaio dira.

Baina oinarri horiez gain, egindako ibilbidean, oztopo eta potentzialtasun antzekoekin topo egin dutela ere ikusi dugu, hauetako zenbait taldekideren adinarekin hertsiki loturik baitaude.

Zailtasun edo oztopoei dagokienez, hauek dira azaleratutako batzuk: taldeari adin batetik aurrera jarraipena emateko zailtasunak, kide berriak taldean sartzeko oztopoak, erakargarritasun falta eta taldekideen artean motibazio maila desberdinak; bestetik, indargune eta aukerei dagokienez: taldeek dakarten freskotasuna, politikoki lerratuta ez egotea eta Interneteko sareak ematen dituen aukerak nabarmendu dira.

Oztopoen aurrean nola jokatu eta potentzialtasun horiek nola baliatu azaltzen saiatu naiz, eta horretarako oso baliagarriak izan dira aritu edo adituekin egindako elkarrizketak eta gazteekin egindako eztabaida taldeak. Hauen bitartez, taldearen funtzionamendu arrakastatsu baterako zenbait gako aipatu direlakoan nago.

Zenbaitetan esan dudan eran, lanak elikatuz joan beharko luke beste esperientzia batzuetatik edanez: beste eskualde batzuetako ekimenak ezagutu, beste gazte taldeen nondik norakoak

jaso, dinamizatzailen gogoetak batu... bada zer egin, eta aurrera begira beste norbaitek hariari jarraitu nahi badio hemen du nire lana abiapuntu gisa.

Lanaren hasieran aipatu dudan arren, bukaeran ere aipatu beharra daukat gazte hauek eginiko hautua txalogarria dela; izan ere, indibidualismoak sekulako indarra hartzen jarraitzen duen gizartean, komunitateari dagozkion ardurak hartu dituzte. Horregatik, gure eginbeharra izango da behar dituzten baliabideak eman eta lana erraztea, beti ere, gozatuko dutela bermatuz. Nire lanak aztertutako taldeei edo Euskal Herrian barrena aurki ditzakegun beste batzuei laguntzeko aukera ematen badu, zentzua hartu lukete egindako esfortzuek.

6.- BIBLIOGRAFIA

-AMONARRIZ, Kike. AREXOLALEIBA, Julen. ERIZE, Xabier. IRIZAR, Mikel. LAKA, Elena. MARTINEZ DE LAGOS, Iker. MARTINEZ DE LUNA, Iñaki. MENDIZABAL, Jasone. SARASUA, Jon. (2015). "Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako", *Topaberri*, 66

-AMONDARAIN, Antton. (1999) "Euskara nerabezaroan. DBH eta DBOn euskararen erabilera sustatzeko hainbat ideia", *Hik hasi*, 42: (online) <http://www.hikhasi.eus/artikulu/485> [kontsulta: 2016/07/20]

-FUNES, Jaume. (1997) "Nerabetasuna", *Hik hasi*, 19: (online) <http://www.hikhasi.eus/artikulu/277> [kontsulta: 2016/07/20]

-GONZALEZ GIL, Nerea. (2008). 6.3. Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

-INSAUSTI, Mikel. (2002). Gizarte zibilaren ahotsa Euskal Herrian. Eragile berriak eta gizarte aldaketa milurteko berriaren atarian. In: *Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, 15, 459-467 or.

-ZUBIAGA, Mario (2002). Euskal gizarte zibilaren ahotsa eta egungo ezaugarriak. In: *Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, 15, 479-488 or.

ERABILITAKO DOKUMENTAZIOA

-Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida (Erabileraren GPSa) – Soziolinguistika Klusterra

-AEDko Gazte sailaren bilakaera

-Ebete: Euskararen erabileran eragiten – Gazteen Euskara Batzordea

-Ttak! – Gaztetxoko: 2011, 2012, 2013 (Maite Agirreren Balorazioa)

-Ixotu taldeko bileren aktak

-Ttak! taldeko bileren aktak

7.- ERANSKINAK

MAITE AGIRRERI ELKARRIZKETA – GIDOIA

1. Sorrera:

- a. Itxaroren lana abiapuntu: diagnostikoa
- b. AED-n gazteen presentzia txikia zela eta kezkatuta
 - i. Talde bat sortu herrian eragiteko (ze urte zen)
 - ii. Aurrekaririk bazegoen?
- c. Gero etorri zen Eusberdin?
- d. Eusberdin bizi da? Badago indarberritzeko asmorik?

2. Identifikatutako arazoak

- a. *Taldea bi urtetik behin aldatu daiteke...* Profilak oso desberdinak
- b. *Motibazio maila aldakorra:* egun batetik bestera
- c. *Konpromiso mailak:* nerabe vs nagusi eta talde bereko pertsonen artean
 - i. Batzuetan bakar batek hartzen du gidaritza
- d. Ikasketek ere denbora asko kendu (monitore eskola)
- e. *Euskalgintzaren erakargarritasuna:* Herrigintza badaude beste talde batzuk erakargarriagoak izan daitezkeenak.
- f. *Erreferente falta* orduan ez da egon? Eskoriatzan ordea bai.
- g. *Jende berria erakarri.* Gaztelekua?
- h. Batzuetan *dinamizatzaila ere falta* eta nor jarri ere izan daiteke arazoa
- i. Erre daitezke beste herrigintzarentzat eskulan merkea izanda
- j. Talde barruan lehiak, koadrilaka sartzen diren neurrian
- k. Inertziaz egiten dira ekintzat, ez benetan eragingo duelakoan

3. Indarguneak

- a. Ze indargune identifikatzen duzu gazte talde hauetan?
- b. Freskotasuna

- c. Motibazioa
- d. Ilusioa
- e. Aurreko molde gabe datoz, gure eginbeharra da moldeetan ez sartzea

BESTE BI ELKARRIZKETAK

*XABIER ARENAZA eta IÑAKI EIZMENDIREKIN izandako elkarrizketetan ez zen gidoirik erabili, baina Iñaki Eizmendiri elkarrizketa egin aurretik dokumentu hau pasatu zitzaion:

SORRERA ETA BILAKAERA

2014. urte amaieran, Ixotu gazte taldea sortu zen Eskoriatzan. Gazte batzuek euskararen alde arituko zen taldea sortu nahi zuten, –azken urteetan, Aretxabaletan eta Arrasaten ere sortu baitziren horrelako taldeak⁸– eta asmoa adierazi zuten herriko udalean zein gazte-lekuan (Txatxilipurdi elkarteak kudeatua).

Gazte taldea koadrila batetako kideek osatzen dute, ia osotasunean. 17 urte bete behar dituzte aurten (lehengo batxilergoan daude). Bi urte nagusiago eta bi urte gazteagoak diren beste lau gazte gehiago dira beste taldekideak: guztira 15 bat lagun.

Argi izan dugu, taldeak euskalgintzaren bueltako ekintzak antolatzeaz gain, batez ere, ongi pasatzea izan behar duela helburu. Alegia, gazte talde sendo bat lortu nahi da, ongi pasatu eta euskalgintzan disfrutatuko duena. Gainera, taldekideak formatzea ere bilatu da: eragiteko tresnak eskaintzea.

Eskoriatzan euskara elkarterik ez dago; horregatik, etorkizuneko elkarte baten kimu gisa ere ikusten da taldea.

Antolamendua

Hasieratik, modu berean antolatu gara, eta, astea erreferentzia hartuta, bi une bereiz ditzakegu:

Batetik, aste barruan dinamizatzaileak (kasu honetan ni) eta koordinatzaileak (gazte-lekuan hezitzailea eta herrigintzan aritzen dena) bileratxo bat egiten dugu. Bileraren helburua aurreko astean egindakoak komentatu eta hurrengo astekoa antolatzea da.

Bestetik, ostiral ilunkaretan, gazte-lekuan bilera egiten dugu gazteek eta dinamizatzaileak. Tokia, eguna eta orduetgia aukeratzeko orduan, hauek izan dira irizpideak: tokiari dagokionez, beraiek ezagutzen zuten leku bat izatea lehenetsi zen, erosotasuna irizpide hartuta. Egunari zein orduetgiari dagokionez, ostiraletan egiteko

⁸ AED (Arrasate) eta Loramendi (Aretxabaleta) euskara elkarten baitan.

gutxiago dituzte gazteek, eta, gainera, gazte-lekuak itxi arte itxaro beharra dugu (ostiraletan 20:30tan ixten du).

Bilera hauetan, gazteen iritziak du lehentasuna; hau da, lehengo eta behin, beraiek dituzten ideiak entzuten dira, eta, bideragarriak badira, hauekin aurrera jotzen saiatzen da. Ideiarik ez balego, alde zuzeneko bileran (koordinatzailearen eta dinamizatzailearen artekoa) irudikatutako ideiak aurkezten zaizkie, eta, beraiek egoki ikusiz gero, lanean jartzen gara.

Urtean zehar, bilera desberdinak egiten ditugu (dinamizatzaileak eta koordinatzaileak) udaleko euskara teknikariarekin. Hauen helburu nagusia da taldea zertan ari den jakinaraztea; hala ere, beste asmo batzuekin ere egin dira bilerak, esaterako, ekintza bat udalaz lankidetzan antolatu denean edo momentu jakin batean beste iritzi bat bilatzen zelako.

Aurrera eramandako ekintzak

Urte eta erdiko ibilbide honetan, ekintza desberdinak antolatu dira. Esan genezake, ekintza hauek izan duten helburuaren arabera bi multzotan bereizi ditzakegula.

Batzuk kanpora begirakoak izan dira. Nolabait, herrian eragiteko bokazio izan duten jarduerak sartuko ditut talde honetan, modu sinpleegian azalduta, eremu publikoan egindakoak. Nabarmentzekoak dira ondorengoak:

- 2014ko Euskara Eguna: Eskoriatzako Hankamotz bertso-eskolarekin batera, herri bazkaria antolatu zen. Bide batez, Ixotu taldeak jende aurrean aurkezteko aukera izan zuen. <http://goiena.eus/eskoriatza/1417292631783>
- “Postaka”, korrika Eskoriatzan: 2015 urtean Korrika ospatu zen, Euskal Herrian. Hasiera batean, Eskoriatza herri barrutik pasatzeko asmorik ez zegoen; azkenean, sartu-irten bat egitea lortu zen. Ordurako, Eskoriatzan “Postaka” antolatzen hasita zeuden: herriko kaleetan zehar korrika egin zuten hemezortzi bat eragilek eta herritar askok. <http://goiena.eus/eskoriatza/1426880358577>
- “Ferixie 2015”, kantuan: Ekaineko lehengo zapatuan, urtero, artisau eta nekazari ferria egiten da herrian. Eguerdian, herri bazkaria egiten da, eta, bazkari osterako, kantu-liburuxka bat sortu zuen Ixotuk denen artean abesteko.
- 2015ko Euskararen Eguna: Abenduak 3ko ilunkaran, kriseiluak bota zituzten zerura herritarrek. Hauek euskararen aldeko mezuekin hornitu zituzten aurrena. <http://goiena.eus/eskoriatza/1449134558097>

- Euskalkiko berbak: 2015eko aste berean, Eskoriatzako euskalkiko berbeekin bideo bat grabatu zen. Herritarrei euskalkiko hitzak aurkeztu eta ezagutzen zituzten galdetu zitzairen. <http://goiena.eus/eskoriatza/1448985824919>

Beste ekintza batzuk barnera begira antolatu dira. Hauen helburuak izan dira taldea sendotzea, beste eragile batzuk ezagutzea, adin bereko euskaltzaleak ezagutzea eta formatzea, besteak beste.

Ostiraletako zenbait bilerek asmo hau izan dute; izan ere, beste ekintza bat antolatzeko eginbeharrak ez zegoenean, elkartu, jolastu, afaldu eta kontu kontari ibiltzen gara. Hala ere, badira izaera honetako jarduera berezi batzuk:

- Galartzako asteburua: 2015an Galartzako baserrira (Arizmendi ikastolak alokatzen du) joan ginen asteburua pasatzera. Egonaldian, eragile desberdinen bisita jaso genuen: Eskoriatzatik Aitzorrotz kultur elkarteak, Auzoko, euskara teknikaria, Aretxabaletatik gazte taldea... Formazioa eta aisialdia uztartu genituen.
- Arrasateko eta Aretxabaletako euskara taldearen bisita: Ostiral ilunkara batean, batera afaldu genuen beste herritako gazte taldeekin. Aurrerantzean, lankidetzan zer antolatu genezakeen ere hausnartu genuen.

Ahulguneak eta desfioak

Bilakaera honetan, zenbait zailtasunekin egin dugu topo. Arazo hauek arrazoi desberdinek eratorriak izan daitezke, eta, horregatik, maila desberdinetan aurkeztea garrantzitsua dela deritzot. Hala ere, garbi daukat guztiak hertsiki loturik aurkitu eta beraien artean eragiten dutela.

Arazoetako batzuk herriarekin zein egun bizi den egoerarekin lotuta egon daitezkeela sumatzen dut.

- *Herria nahiko "hila" dago:* orokorrean, herrigintzari dagokionez, gazte mailan ez dago gauza handirik. Egun, gazteak San Pedroak antolatzeko bakarrik elkartzen dira, eta, ondorioz, taldeak ez du gazte ekintzaileen erreferentziarik. Esango nuke beste herri batzuetan ere gauza herrigintza nahiko itzalirik dagoela, eta, ziurrenik, arazoak hausnarketa sakonago baten beharra du.
- Gainera, Eskoriatza herri txikia den neurrian, nerabeak ez dira beste herri batzuetan bezain erraz giroan *integratzen*: poteatu beharko luketen taberna berean poteatzen dute beraien gurasoek.

Bestalde, nerabeak diren neurrian, adinak ere berezitasun batzuk sortzen dituela argi dago:

- *Herrigintza eta ikasketak uztartu*: Ikasketek sekulako garrantzia hartu dute. Gure taldea selektibitatearen atarian dago –gehienak, behintzat–, eta ondorioz, libre izaten duten denbora murrizta da.
- *Motibazioa*: Nahiz eta taldea martxan jartzea beraiek eskatu, egunetik egunera izaten duten motibazio-maila oso aldakorra da. Ez da berdina pertsona heldu batek egiten duen hautua militantzia batekiko, edo gazte batek egiten duena.
- *Konpromiso mailak*: Aurrekoari jarraiki, gazte batzuk beraien lagunak bertan daudelako jarraitzen dute taldera etortzen, eta hori oso positiboa dela jakin arren konpromiso mailak oso desberdinak dira.
- *Euskalgintzaren erakargarritasuna*: Lerro batzuk gorago, herrigintzak orokorrean duen ahuldadea aipatu dut. Nahiz eta jakin beste belaunaldi batzuk ez direla idealizatu behar, egun, inguruan, ez diot indar asko ikusten; urte batzuk atzerago, hobeto zegoela iruditzen zait.

Gainera, euskalgintza bera ez da gazteentzat mugimendu erakargarriena: euskalgintzan hasi eta talde feministan, gaztetxean edo Ernai-n amaitu duten gazteak ezagutu ditugu. Hau ere oso positiboa dela iruditu arren, erakargarritasun falta horrek kezkatzen gaitu. Gainera, batzuetan, beraien inguruko gazteek desberdin ikusten dituzte taldekideak, herrigintzan aritzearren.

- *Ideiak sortu, proposatu vs ideiak jaso*: Esan bezala, beraien ideia eta asmoek dute lehentasuna, baina, ideiak sortu eta proposatzeko orduan, ez da arrakasta handirik lortu. Ez dituzte beraien kabuz plazaratzen.

Horren orde, guk planteatutako ideiekin jo dugu aurrera. Honek zalantza asko sortu dizkigu: beraiek ideiei erakargarritasun gutxi ikusi dietelako eta denbora guztian guk pentsatutakoak eginez gero, “erreta” amaitu zezaketelako.

Esandakoak esanda, gauza bat nabarmentzea garrantzitsua dela uste dut: ezintasunak hezitzaileak eta koordinatzaileak ditugu. Hau da, beraien motibazioa lortzeko, ideiak ateratzeko, herrigintza erakargarri bilatzeko... tresnak behar ditugu. Lan honen bitartez, tresna horietako batzuk identifikatzea bilatzen du.

GAZTEEKIN EZTABAIDA TALDEA

1. Nire burua aurkeztu eta elkartu izanaren zergatia azaldu (gutxi gora behera)
2. Zelan sortu zen talde hau?
 - a. Kontzientzia maila ezagutu
 - b. Zerk erakarrita aritzen dira?
3. TALDEAREN IZAERA - FUNTZIONAMENDUA
 - a. Koadrila berekoak, gehienak bai eta gutxi batzuk ez...
 - b. Zenbatean behin elkartzen diren, noiz eta non
 - c. Watsapp taldea badaukazue? Erabili duzue? Bakarrik geratzeko edo ekimenak planteatzeko/proposatzeko ere bai?
 - d. Batzuk lokala duzuela entzun dut? Han egiteko duzue berba taldearen inguruan?
 - e. Taldean aritzeak zer eman dizue: positiboa/negatiboa
4. Gazte gehiago taldera ERAKARTZEN saiatu diren ezagutu
 - a. Hala bada, zein izan da estrategia – kide berriak nola sartu ziren?
 - b. Aurrerago, berriak sartzeko asmoa baduzue?
5. Orain arteko EKIMENAK (egindako ekintzak) ezagutu, beraien ahotik
 - a. Nola baloratzen dituzte?
6. IKASKETAK – BESTE ERAGILEEKIN LOTURAK
 - a. Denbora aldetik nola moldatzen dira?
 - b. Badu loturarik ikastolan egiten diren ekintzekin? Begirale titulua ateratzeko asmoa duzue?
 - c. Eta herriarekin eta eragileekin (gaztetxea, txosna batzordea...)? JARDUNekin lotura etorkizunean?
7. Urtebete barru, asko kanpora joango direla suposatuta...ETORKIZUNA
 - a. Taldeaz jarraitzeko asmoa duten edo ez
 - b. Hala bada nola jarraitzeko asmoa: asteburutan, sare sozialen bitartez...

WATSAPP-a / LOKALA-K eman dezakete aukerarik?
8. Dinamizatzailearen papera
 - a. Etorkizun horretan, dinamizatzailea bai edo ez

9. Beste HERRIETAKO TADEEKIN HARREMANA